



uk

24. martakoa / 2013ko azaroaren 6a

URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
 Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
 Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
 Urte osoan argazki zahar eta barriak
 Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
 Urtean 20 euro

uk  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz neuk ere gura dot UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT CAPTUR HARRAPATU BIZITZA



Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4raino. CO2 isuria (g/km) 96tik 125eraino.

DRIVE THE CHANGE 

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
 ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bitor Egurola, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritzta Bergara, Ixone Vega, Algortako Bertsio Eskola eta Bizarra Lopoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Laurita Siles
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 BERMEOko UDALA
 Erandioko Udala	 Sestakako Udalak	 Urduñoko Udala
 Plentziako Udala	 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO	
TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111 HEKUPAZ ZA, HEKUPAZ ZA, HEKUPAZ ZA! POLITIKA ETA KULTURAN DUELA. Hukarria Publikazioa Babesleak duela. DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA. Y C/Carretera de PU. 10a Lengua 1a		
 Bizkaiko Foru Aklundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturako Saila Departamento de Cultura		

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Osakidetza murrizketen aurkako elkarretaratzeak.
6. FACEGUK. Zer deritoxo perrebikoak zakuka hartzeari saltzeko?
7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako tren-geltokia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jobaisa Herran.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Eskalada Gorlizen.
28. ARGAZKIA. Cabo Quintres itsasontziaren hondoratzea.
30. BERBETAN. Letizia Canales.
34. FOTOGRAFIA. Zilbetiko basoa (hainbaten artean).
40. SAKONEAN. Condor legioarenak gurean.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zinebi55.
43. MUSIKA. Musketan ekimena.
44. LIBURUAK. 10. Literatura Eskola.
45. KIROLAK. Lucia Ybarra.
46. ELKARRIZKETA. Sarai Montes eta Ares Piñeiro.
47. JENTILKOBA. Gauekoren olerkiak.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Gaztaiaren bizitasuna...
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxo Rugby taldea Gemikan, 1988-89.
54. AITORMENAK. Maixa Lizarribar.

Azala: Edu de la Parte


www.ukaldizkaria.biz



30 Leti Canales

Berbetan

Sopelako surfleri gaztea Brasilen jokatzen ari den Munduko txapelketan lehiatu da.



11 Jobaisa Herran



54 Maixa Lizarribar

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Leihatila

> Arrate Illaro

EHU baina UPV

Gogoratzen Asterix eta Obelixen 12 probak? Eraikin batean gora eta behera ari dira biak, nora joan behar duten asmatu ezinik eta administrariekin zoratuta. Ba horrelaxe sentitu nintzen ni lehengo batean unibertsitatean.

Eskatu eta urtebetera ematen duten diploma txatxu horietako bat jasotzera joan nintzen Leioako fakultatera. Tramite erraza izango zelakoan, bi eraikin eta hiruna solairu pasa behar izan nituen nire dokumentua gordetzen zuen atea zeharkatu arte. Horraino anekodota.

Amorrazazi ninduen, ordea, administrariaren jarrera izan zen. Bai, ustez nora joan behar nuen esan zidaten. Baina EHUra joan nahi, eta UPVra heldu nintzen. Batekin zein bestearekin, etengabeko borroka zen elkarriketa euskaraz eduki nahi izatea.

Barka nazatela gaia orokortzean minduta sentitu direnek, jakin baitakit ez dela guztien gaitza. Baina nik ez nuen UPVn ikasi, eta lehengoan ez nintzen EHUra heldu.

Iritzia

Bilgune Feministako Algortako Lur Moraguesek Azaroaren 25eko aldarrikapen eta salaketa egunaren harira bidalitako iritzi-artikuluak duzue ondorengoak:

Amaituko da, ala akabatuko dugu?

Azaroaren 25a Dominikar Errepublikako 3 ekintzaile politikoren erailketaren data da. He-go Amerikako eta Erdialdeko Amerikako mugimendu feministak emakumeon kontrako indarkeria salatzeke eguna bilakatu zuen gerora. Ordutik urtero indarkeria matxista darabilten

«Autodefentsa feministarekin patriarkatuak etorkizun laburra»

gizonen eskutan erailak diren emakumeak erakusten ditugu gogora mundu osoan, baita emakumeok egunero jasan behar dugun indarkeria bere osotasunean ere.

Sinesgaitza eta onartezina egin beharko litzaziguke XXI.mendean, hain garatu eta aurre-rakoi sinesten bagara, gizonak lasaitasun osoz emakumeak gutxiestea, erasotzea, bortxatzea... eta hiltzeraino ausartzea. Errealitatea ordea beste bat da eta badakigu.

25ean politikoki zuzen den txapa morea jantzi eta gure udaletxeen aurrean kontzentratuko gara, eta gure agintariak ere pankarta atzean jarriko dira. Non dago akatsa orduan? Benetako borondatea eta konpromiso faltan.

Mugimendu feministak urteak daramatza esaten emakumeonganako indarkeriak patriar-

katuak bizirik dirauen bitartean jarraituko duela. Indarkeria matxista ez dela gizon matxista gutxi batzuen jokabide kasuala. Arazoa errokoa dela, eta indarkeria sexista emakumeon zapalketa iraunarazteko bitarteko ezinhorra da. Emakumeok beldurra, ezintasuna, gutxiespena, kulpa... gure hezurretaraino sentitzeko eta inkonzientean barneratuta izateko tresna benetan eraginkorra da.

Batir nire lagunak esaten duen bezala, ez gara bizi gizonak eta emakumeak askatasunean bizitzeko hezten gaituen jendarte baten, non gizonak erasotzaile ez izatea helburua den. Emakumeak erasoekiko gure burua defendatzea behartuta gauden jendartean baizik.

Horregatik deitzen dugu emakumeon auto-defentsa feministara!

Emakumeak gai garelako gure buruak zaintzeko eta gugandik hasten delako indarkeria sexistarengandiko muga. Gure buruak zainduz eta elkarrekin ekinez. Nekez azal daiteke hiru lerrotan autodefentsa feminista zer den, baina defentsa pertsonalarekin nahasten duen horri ideia aldatzeko moduko zertzelada batzuk eman daitezke: Autoestimua lanketa-tik eta feminismotik abiatzen den praktika da. Gure buruak hobeto ezagutu eta maitatzetik, kolektiboki erasotzaileei joko lekuri ez uzteraino. Elkartasuna, konplizitatea eta segurtasuna ardatz izanik. Beldurra eta Heteroaraua lekuz kanpo utziz.

Gatazka ikusaraztea, mugak jartzea eta menpeko harremanik gabeko jendarte eredu eraikitzea ordea denon esku dago: sistemaren egiturak kolpatuz, eta kolektiboki sakoneko aldaketak emanez.

Beraz, bada garrantzitsua Azaroaren 25eko mobilizazioetan egotea, eta gure bizitzak hainbeste baldintzatzen dituen sistema nazkagarri hau gustuko ez dugula adieraztea.

Lur Moragues Saitua
(Bilgune feministako kidea)



ALGORTA, 2013KO URRIA

Murrizketen kontra / Hamaika protesta egin dira azken aldian murrizketen aurka, eremu eta arlo desberdinetan: hezkuntzan, administrazioan, e.a. Osasun arloko murrizketak ere jasaten hasiak gara, berbarako: botiken koordainketa. Testuinguru horretan, Osasun arloko langileak protestak egiten dabilta, ez bakarrik hiri handietan, herrietan ere bai: osasun zentron aurrean elkartu ohi dira, batzuetan astero. Irudi hau Algortako Alangoko ambulatorioan urriaren 18an egindako protesta bati dagokio. Murrizketen aurkako oihuak ozen entzun ziren inguru osoan. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

gu geu**Badirudi baietz**

Emoten du baietz, oraingoan heldu da udagoien gorria. Baten batek Martin Deuna izango du gogoan, otoitz egingo dionik ere izango da, udatxoaren zain dagoela... Eta "gizakiok hala adostuta" (guri inork galdetu ez badigu ere; eta zuri irakurle?) erlojuaren orratz txikiari atzerantz eragin ostean, Gauekoren denbora ere luzatu dugu, egunak arinago iluntzen du...

Eta orain ere berotasuna amets! Alkarren albora hurreratzeko, gorputzek gorputzen bero-beharra asetzeko, sasoi heldu da! Goza ditzagun, horrenbestez, udagoiena eta gaua! Beto gaztaina erreak, edozein sutondo mota inguruko ipuinak, batak besteari belarrira xuxurlatutako sekretuak eta... Bero-berotan, goza ditzazuela!

UK-ko lan-taldea

***OHARRA: Okerrak zuzendu asmoz, UK 237. zenbakiko zutabeko "Espainoldu" artikulua ez zen ageri moduan Arrate Illarorena, Amaia Arriagarena baino. Barkatu eragozpenak.**

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zer deritzozu perretxikoak zakuka hartzeari gero saltzeko?



Ana Rodriguez

> musika-irakaslea

Katalunian egiten duten bezala, perretxiko-bilketa murriztea ondo egongo litzatekeela uste dut. Kopuru bat ipini batek perretxiko guztiak eraman ez ditzan. Dirua ateratzeko modu erraz bezala agertzen delako orain.



Ainhize Prieto

> ikaslea

Gaur egungo egoerarekin dirua lortzeko modu ona dela uste dut, baina buruarekin egin beharko litzateke eta ez gertatzen ari den bezala, bakoitzak gura beste eraman ahal izatea. Horrez gain, ondo saltzeko jakin behar da zeintzuk diren motak, jendea ez pozointzeko noski.



Nerea Sanz

> ikaslea

Dirua lortzeko modu ona iruditzen zait, egia esan ez dut txarto ikusten, baina kontrolpean egon beharko lukeela uste dut. Kontrolik ez izatekotan Kantauriko antxoarekin gertatu zen bezala gerta daiteke, azkenean desager daitezke perretxiko motak.



Josu Intxaurreaga

> langabea eta ikaslea

Mendizale bezala txarto iruditzen zait. Ez naiz perretxikoak hartzera joaten, baizik eta mendian ibiltzera, baina hartzen dituztenek kontsumorako erabiltzen badituzte ondo ikusten dut, dirua ateratzeko ez. Udalean ordaindu beharko litzateke, herri askotan egiten duten bezala.



Pilar Rodriguez

> bulegaria

Nahiz eta mendizalea izan ez ditut perretxikoak hartzen, bildu ahal izateko lehendabizi ezagutu behar direla uste dudalako eta ibiltzen noan heinean, perretxikoak ikustea gustuko dudalako. Beste lekuetan egiten den ordainketa-sistema beharrezkoa dela uste dut, bestela guztia suntsiturik geratuko da.



Amaia Torrealedea

> euskara-irakaslea

Perretxikoak biltzea ondo iruditzen zait bakoitzaren kontsumorako, zakuka hartzea eta gainera saltzeko ez dut ondo ikusten. Mendiak guztionak dira eta guztioz gozatu beharko genuke horietaz. Gainera arrisku puntua baduela ere iruditzen zait, bilketa egin ahal izateko gaia ondo ezagutzea funtsezkoa delako.



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIako TREN-GELTOKIA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Image zaharra



Berango, 2013ko iraila

Testua: **Itxaso Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

Gaztetxotan pizten ginen zigarro erdi erreta nagusiagoei jarri ohi baikeinen arreta. Larunbaterako plana izaten zen berriketa: Imagera joango al gara? fama ona dauka eta! Azkenean animatu ginen joaten tarteka nahiz eta askoz nahiago izan txosnetara buelta. Hainbat belaunaldik dugu oroimenean gordeta Berango ezagutzera eman zuen diskoteka.

Segurata gihartsuek jarri ohi zuten ordena esanez nor zen lehena sartzeko eta nor hurrena. Neskek gona janzten zuten rimela eta melena, mutikoez alkandora, radarra eta antena. Aupa zer moduz rubio? Surik ba al duzu morena? Ligatzea ez zen izaten Inorentzako problema. Nahiz eta argazkiko horman bakarra izan izena Coca-Cola hutsa ez zen bertan edan genuena.

Aspaldi ez zetorrela gazte askorik hemendik, Astrabuduan topatu al dute leku hoberik? Nahiz eta atea itxi nonbait bada ondorenik propio jarri diona *The Moon* ez beste izenik. Hara joan nahiko dute Leizadik eta Liernik, ulertzen dut nola amarik ez duen eman baimenik. Nahiz ta propaganda truke tragoa hartuko nukeen nik ez pentsa bertan askotan aurkituko nauzuenik!

* Doinua: *Habanera*

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

tailerra > zergatik ez?



Info+: www.zergatik ez.org

Zergatik ez? tailerra Euskaltzaleen Topaguneak sortu du bigarren aldiz, euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko. Kataluniako *Tallers Per La Llengua*ren materialean oinarrituta; inguruan ditugun hizkuntzekiko harremanaz gogoeta egin, euskarari garrantzia handiagoa emateko gakoak eskaintzen dira. Horrez gainera, norberaren hizkuntza jarreraz eta bere ondorioez hausnartzeko

denbora ere badago bi ordu eta erdi irauten duten saio hauetan. Euskararekiko jarrera baikorrak sustatu eta hizkuntzaren errealitatearen eta etorkizunaren ikuspegi azaltzea dute helburu, euskara gozatzeko gonbitea luzatzen duten heinean. Tailerrotan 11 euskara elkartetako lagunak trebatu dira Euskal Herri osoan, besteak beste, Getxoko Bizarra Lepoan euskara elkartekoak. ○

berbaldia > Aitzol Altuna

“Euskera eta Nabarrako Estatu” gaiaren gaineko hitzaldia eskainiko du Aitzol Altunak Villamonteko kultur etxean. Berbaldia azaroaren 20an, eguaztena, izango da arrastiko 19:00etan. Aitzol Altuna (Galdakao, 1971) analista, euskal historian aditua eta Nabarraldeko kidea da eta hainbat hitzaldi eman ditu Nafarroako erresumari buruz Euskal Herriko zenbait herritan azken aldian. Ekitaldia-

ren antolatzailea Bolivartiar Ikaskuntza Elkartea da, eta Getxoko Udalaren laguntzagaz hilero prestatzen dituzten hitzaldi-zikloen barruan aurki daiteke honako hau. Elkartearen webgunean antolatzen dituzten hitzaldi eta ikastaroen gaineko informazioa aurki daiteke eta zalantzak izanez gero *email*-era idatz daiteke argibide bila. ○

Info+: www.bolibar.org



Harremanetarako: bolibarikastaroa@gmail.com



Sopela, gitxien artifizializatukoaren artean

porlanezko kostaldea > greenpeace

Bizkaiko kostaldearen %16 porlanez estalita dagoela dio *Greenpeace* argitaratutako *“Destruccion a toda costa”* (Kosta ahala kosta birrintzen) azken txostenak. Hego Euskal Herriko kostaldearen egoeraren gaineko hainbat datu emon ditu, Petronorren findegia erruduntzat joz neurri handi batean, natur balio handiko eremuak euren industria jardueretarako okupatzea egotzi baitio enpresari. Bestalde,

azken urteetako hirigintza prozesu bizkorak kaltea eragin duela salatu du, Bizkai- an artifizializatutako natura-eremuak %36 igo dira. 1987tik 2005era gehien artifizializatu diren udalerrien artean dago Getxo; barriz, gutxien artifizializatutakoen artean daude Barrika eta Sopela. Eremu osoaren okupaziorik handien artean Getxo eta Plentzia aurki ditzakegu. ○

Info+: www.greenpeace.es

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Atzeko jesarlekua estreinatu aurretik...

Praktika ezazu!

L Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria dakar!


100 euroko erregai-txartela. Asteburuko egonaldia landa-etxe batean. iPad bat bidia eta ibilbideen aplikazioak sartuta. Estreina ezazu atzeko jesarlekua behar duzun guztiarekin!

Ikasi eta irabazi!

Galdetu zure autoeskolan edo euskara zerbitzuan!

Erandio: Altzaga, Arias, Astrabudua, Erandio eta Gaztedi. **Getxo:** Algorta, Amezti, Arias, Getxo, San Inazio eta Uribe Kosta.

Gorliz: Gidatu. **Leioa:** Arias eta Orixe. **Plentzia:** Uribe Kosta. **Sopela:** Kaiku, Sopelana eta Uribe Kosta. **Urduliz:** Kaiku.



"Betiko lagunak izaten jarraitzen dut; oso erlijiosoak eta oso ateoak ere bai!"

Jobaisa Herran > Deboziaz jantzita

Indautxuko eliza ondoko abadeen etxebizitzan hartu gaitu Jobaisa Herran algortarrak. Jendearen harriduragaz ohitura ei dago: "Kalean noala, komentario ugari entzuten ditut: "Benetan, apaiz gaztea!", eta horrelakoak..." Ez da gutxiagorako; izan ere, Jobaisa apaizak 27 urte baino ez ditu, Bizkaiko gazteena ez ezik, Euskal Herriko apaizik gazteena ere bada. Gazte-gaztetatik argi izan zuen bokazioa: "10 urtegar meza-laguntzaile hasi nintzen Algortako San Nikolas parrokian, eta bertan abadeei laguntzen, lan horrek, bokazio horrek liluratu ninduen; jendea laguntzea, otoitz egitea, meza ematea maite ditut". 18 urtegar Nafarroan Filologia Hispanikoa ikasten hasi bazen ere, laster jakin zuen irakaskuntza ez zen beste bide bati jarraitu behar ziola: "Otoitz egiten Jainkoari galdetu nion: zer nahi duzu nitaz, Jauna?" Eta bai, Jainkoak erantzun ei zion; hala, 2005eko irailean Bilboko elizbarrutiko seminarioan sartu zen ikasle. Bertan, guztira 7 urte eman ditu, azkenik, iaz abade egin arte, 2012ko San Juan egunean, hain zuzen. Apaiz izateak ez ei du betiko lagunengandik urrundu: "Niretzako ez da arazo izan: lagun oso erlijiosoak dekodaz eta oso ateoak ere bai". Frantzisko Aita Santuaren hautaketaz galdetuz gero, "Juan Pablo eta Benedikto oso onak izan dira, oin Frantzisko; Espiritu Santuak aukeratzen ditu, beraz, berak dioena beti ondo." O Argazkia: **Asier Mentraka** / Testua: **Nerea Gujarrubia**

Manga eta komikia nagusi

Getxoko **Manga-Azoka** azaroaren **16an eta 17an** izango da eta **Komiki-Azoka 22tik 24ra**, Areetako **Geltokia** plazan; **Komiki-Azokak Superlopez** komikiaren **sortzailea omenduko** du aurten

Komiki eta mangazaleok, iritsi da urteroko hitzordua: azaroan egingo dituzte Manga eta Komiki Azokak Areetan, lehena hilaren 16an eta 17an, bigarrena 22tik 24ra. Erakusketak, salmenta-postuak, tailerrak eta beste hainbat jarduera antolatu dituzte egunotarako. Gainera, Komiki-Azokan Luis Gasca dibulgatzailea eta JAN komikigilea omenduko dituzte, azken hori Superlopez pertsonaiaren sortzailea.

Getxoko Manga eta Komiki Azokak azaroko aste akabu bitan izango dira: Manga-Azoka hilaren 16 eta 17an, eta Komiki-Azoka 22tik 24ra; biak egingo dituzte Areetako Geltokia plazako karpan. Goiz eta arrastiz zabalduko dituzte azoka biak, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Manga-Azokaren baitan, ohiko postuez gainera, tailerrak, ikebana lore-apainketa edota erakusketak egingo dituzte. Azokarako sarrera 3 eurokoa izango da.

Getxoko XII. Komiki-Azoka, barriz, azaroaren 22an, 23an eta 24an egingo da. Erakusketa-eremua, tailerrak, ekitaldi-aretoa eta argitaletxe, saltoki, erakunde, fanzine... eta komikiaren munduagaz lotutako edozein sektorerentzako merkataritza-esparrua bilduko ditu. Baina erakusketak egun batzuk lehenago hasiko dira, azaroaren 18an, eta abenduaren 8ra arte ikusi ahaliko dira:

Bizkaiko Zubian, *1512: in memoriam* ipiniko dute (Juan Luis Landa); Areetako Glass kafetegian, Patxi Pelaez; Romoko Jai



Aste akabu bitan egingo dira Manga eta Komiki Azokak Areetako Geltokia plazan

Alai tabernan, Sarima; eta Algortako Torrene aretoan, *Comic e ilustracion Injuve 2012*, 18 marrazkilariren istorio eta irudiak (azararen 27ra arte bakarrik).

Azokak iraun bitartean, gainera, ondokoak ikusi ahaliko dira karpan: David

“Hainbat erakusketa izango dira Bizkaiko Zubian, Glass eta Jai Alai tabernetan, kultur etxean eta Torrenen”

Rubinen *Beowulf*, Alemaniako komikiari buruzko *Comics, Manga & Co*, Ultrarradio kolektiboa eta Modernapueblo. Sarrera 1,5 euro ordaindu beharko da.

Bestalde, eta Errumaniari buruzko jardunaldiakaz bat eginik, herrialde hartako komikigintzaren gaineko erakusketa ipiniko dute Villamonteko kultur etxean,

azararen 11tik 30era bitartean.

Ohitura denez, gainera, egile batzuk omenduko dituzte Komiki-Azokaren baitan: bata da Luis Gasca dibulgatzailea (Donostia, 1933), bestea Juan Lopez JAN marrazkilaria leondarra.

Luis Gasca Zuzenbidean doktorea da, eta komikigintzan eta zineman aditua: Donostiako Zinemaldia zuzendu zuen. Besteak beste, komikigintzari buruzko liburuak idatzi ditu, Bordigherako Salone Internazionale dei Comics azoka sortu zuen beste hainbategaz batera eta Pariseko Komiki Ikerkuntza Zentruen Nazioarteko Federazioaren idazkari nagusi jardun zuen. JANek, barriz, Superlopez pertsonaia ospetsua eta Pulgarcito hurrentzako saila sortu zituen. ○

Info+: www.salondelcomicedgetxo.net/eus

BOEtarako nahikoa diru ez

Azken irabazleen %60k uko egin dio etxebizitzari



Alangon egiten dabilta salmentako Babes Ofizialeko Etxebizitzaren azken promozioa

Alangoko salmentako Babes Ofizialeko Etxebizitzaren azken promozioa irabazleen %60k “*uko egin behar izan dio etxebizitzari, exijitutako baldintzetara heldu ezinik*”, eta Ormazako promozioan ere “*egoera antzekoa da*”, Bildu udal-taldeak jakinarazi duenez. Koalizioaren iritziz, salmentako Babes Ofizialeko Etxebizitza, “*eskaintzen den baldintzetan, gaur egun ez da etxebizitza eskubidea getxoztar guztiei zabalteko benetako alternatiba*”.

Ildo horretan, Bildu kritikatu du Getxon, “*oraindik ere, PSEk eta EAJk 2009-an adostutako Etxebizitza Plana Hiri Lurzoruan delakoak markatzen*” duela etxebizitza-politika, baina ez dela “*inondik inora betetzen ari, epeetan behintzat*”. Udalak iragarri zuen 2010 eta 2012 artean gitxienez 150 babestutako etxebizitza egingo zi-

tuela Alangon 35 urtetik beherakoei errentan emoteko, baina Bildu salatu du gazteek oraindik ez dutela “*promozio bat bera ere ikusi*”.

Horregatik, mozioa aurkeztu du, ondokoak eskatuz gobernu-taldeari: indarrean dagoen Etxebizitza Planaren inguruko eztabaida zabalteko HAPNren berrikusketaren barruan eta, lan-taldean eztabaidatu ostean, barriro definitzea datozen urteotarako etxebizitza-politika; alokairuzko etxebizitza soziala bultzatzeko ahalik eta neurri gehien hartzea, barria zein bigarren eskuko izan; etxe hutsen errolda gaurkora; eta hutsik dauden etxebizitzak alokairuzko etxebizitza sozialeko programetan sartzeko bere esku dauden neurriak hartzea eta baliabide danak jartzea. ○

Info+: getxo.ehbildu.net

UR-JARDUERAK UMEDUN ETA SENDIENTZAT

Hasi dira umedun, haurtxo eta familiei zuzendutako ur-jarduerak. Abonoa dutenei zuzenduta daude eta Getxo Kirolak elkarteak antolatzen du, Getxo Igeriketa Waterpolo klubaren eta lehen arretako osasun-zentroen laguntzagaz. Umedunentzako jarduerak Gobela kiroldegian dira, zapatuetan, 09:00etatik 09:45era. Umeentzako igeriketa ere Gobelan da eta zapatuetan, 09:45etik eta 2 urte bitarteko umeentzako 09:45etik 10:35era, eta 2 eta 4 urte bitarteko umeentzako 10:35etik 11:00etara. Azkenik, sendientzako jarduerak Faturan egingo dira domeketan, 10:00etatik 11:00etara. Izena emon behar da kiroldegietan.

Info+: www.getxo.net, 944 308 070 (Fadura) eta 944 045 151 (Gobela)

OHZ ORDAINTZEKO LAGUNTZA-DEIALDIA

Azaroen zabalduko da OHZ (Ondasun Higiezen gaineko Zerga) ordaintzeko diru-laguntzen bigarren deialdia, EHBildu jakinarazi duenez. Lehenengo deialdiagaz alderatuta, baldintzak malgutu eta prozedurak erraztu dituzte. Bigarren deialdiak 2013ko OHZ ordaintzen lagunduko du, eta zaborra eta estolderiaren tasak ere lagunduko ditu; aurreko deialdiko jasotzaileek ere eskatu ahaliko dute laguntza.

Info+: getxo.ehbildu.net

ENPRESENTZAKO AHOLKULARITZA

Getxoko enpresentzako aholkularitza zerbitzu barria eskura dago, enpresaren kudeaketa-eremu ezberdinei buruz: merkata, komunikazioa, merkataritza-kudeaketa, offline/online marketina; ekonomikoa eta finantzarioa; giza-baliabideak; antolakuntza/pertsonak; legeak-zergak; eta enpresa-estrategia. Udalak eta Getxolan Ekonomia eta Enplegu Sustapenerako Zerbitzuak abiatu dute. Parte hartzeko Getxolanegaz harremanetan ipin zaitezke (Areetako Elkartegian, Ogoño kaleko lehenengoan).

Info+: getxolan@getxo.net



Denboraldi berriko arropa prezio paregabeetan

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Simona Dragomir > Errumaniari buruzko jardunaldiak

“Jendea errumaniarren beldur izaten hasi denez, saiatzen gara ez nabarmentzen”

Munduko paisaiak: liburutegiak topaleku jardunaldiak abiatuko dituzte Getxoko Liburutegiek eta Immigratio-Unitateak. Asmoa da herriko etorkinak bultzatzea liburutegiak erabiltzera eta, era berean, Getxon dauden etorkinen herrialdeak eta kulturak ezagutaraztea bertokoen artean. Aurten Errumania aukeratu dute eta, horregatik, Simona Dragomir algortar bizilagunaren historia ezagutu gura izan dugu. Errumaniatik etorri zen orain lau urte eta senideakaz bizi da.



Info+: www.getxo.net

—Zenbat denbora daroazu Getxon eta zergatik etorri zinen?

—Duela lau urte etorri nintzen eta nire senarra duela hiru. Gurasoak duela 12 etorri ziren, lehenengo Portugaletera eta orain zazpi urte Getxora; neba Errumaniari bizi da. Buzau hirikoak gara, Bukarest hiriburutik 150 kilometrorra dago. Gurasoak hemen zeudenez oporretan etorri nintzen, baina lanpostua topatu asmoz. Ez nekien geratuko nintzen, baina lana topatu nuen hemen ziharduen Errumaniako enpresa batez. Horren ostean, bertako enpresetan lan egin dut: administrari laguntzaile, kanpo-merkataritzaren teknikari, e.a. Une honetan ez daukat lanik, baina espero dut laster topatzea. Senarrak eta gurasoak lana daukate eta laurok batera bizi gara. Errumaniara udan joaten gara.

—Bizitza hemen antolatuta daukazu?

—Bai. Pena da ez dugula jende askorik ezagutzen; gure bizitza soziala mugatzen da familia eta ezagun batzuetara.

—Zaila izaten ari da integratzea?

—Ez dakit zaila den, ez baitakit asko saiatu garen. Bertako lagun bat daukat, lane-

koa. Baina esperientzia txarrak ez dut izan eta auzoko jendea ezagutzen dut.

—Getxon 500 errumaniar zarete, badaukazue harremanik? Elkartzen zarete?

—Ez, bakoitza berean dabil, tratatu askorik ez daukagu elkarren artean. Batzuk elkartzen dira, baina lagunarteko gauza da. Familia apur bat badaukagu hemen, baina

“Gurasoak hemen zeudenez oporretan etorri nintzen, baina lanpostua topatu asmoz; gero senarra etorri zen, eta neba Errumaniari dago”

bestela gitxigaz daukagu harremana.

—Eta bertakoek zelan hartu zaituztete?

—Pertsonaren arabera. Batzuek bereizten dute, baina beste batzuek errumaniar danak nahasten gaituzte eta irudi txarra daukate guri buruz. Errumaniar-ijitoen irudi txarra dauka jendarteak, baina errumaniar danak ez gara ijitoak; gainera, horrek ez

Egitaraua

- **Azaroak 14, eguna:**
-Hitzaldia: Errumaniar literatura ezagutzeko, zergatik irakurri errumaniar idazleen liburuak (Villamonteko kultur etxea; 19:00)
- **Azaroak 18-30:**
-Erakusketa emakume ijitoei buruz (Algortako merkatua; 08:00-20:30)
- **Azaroak 11-30:**
-Erakusketa errumaniar komikigintzari buruz (Villamonteko kultur etxea)
- **Azaroak 21, eguna:**
-Ikastaroa: Errumaniako sukaldaritza (Fadurako Ostalaritza Eskola; 19:00)
- **Azaroak 27, eguaztena:**
-Liburu aurkezpena: *Una parte de mi*, Loredana Vancea (Villamonteko kultur etxea; 19:00)
- **Azaroak 30, martitzena:**
-Azken jaiak (Villamonteko kultur etxea; 18:00-20:00)

du esan gura, ez errumaniar danak txarrak garenik, ez ijito-errumaniar danak txarrak direnik. Jendea errumaniarren beldur izaten hasi da, eta horregatik, gu saiatzen gara asko ez nabarmentzen, apal jokatzeko saiatzen gara.

—Kikiltzera eta gordetzera behartzen zaituztegu bertan jaiotakook?

—Ez dakit. Errumaniar arazo bera egon liteke baina alderantziz, eta ez da horrela. Krisialdi honetan, gainera, ez da erraza. Dena dela, askotan, jendeak ez daki non goak garen ere: errumaniar askok ez daukagu hemengoetatik itxura oso desberdina, eta hizkera ez dakite zehazki men-debaldeko zein herrialdekoa den. ○

Urteko azken jaiak!

Hezetasuna auzoak San Martin jaiak ospatuko ditu azaroaren 8tik 10era



The Riff Truckers taldeak azaroaren 9an joko du, zapatuan

Azaroaren 8tik 10era izango dira Hezetasuna auzoko jaiak: sanmartinak. Daborduko egin dute ohiko herri-krosa, iragan domekan, azaroaren 3an; datorren aste akaburako, barriz, hamaika ekitaldi antolatu ditu Jai-Batzordeak.

Barikuan jaurtiko dute txupina, hilaren 8an, 17:30ean. Ordutik aurrera, besteak beste, ondokoak egongo dira: buruhandiak, koblakariak, suzko zezena, abesbatza-emanaldia elizan eta kontzertuak, 22:30ean, aurten barrero ere auzoan: Sons of Kset eta Ukan taldeek joko dute.

Zapatuan, barriz, egun osoan izango dira ekimenak. Goizean diana, txistula-

riak, umeentzako marrazki-lehiaketa, puzgarriak, eta tiragoma zein igel-toka lehiaketak egingo dituzte, eta horren ostean paella-jana. Arrastian, besteak beste, mus-txapelketa, herri-kirolak, fandango eta arin-arin erakustaldiak, aurreku-txapelketa, kalejira eta txorizo-burduntzia. Gau girotuko dute The Riff Truckers eta DJ Tea Party taldeek.

Domekan ere ez da faltako eskaintzarik: indaba-txapelketa, tailerrak, artisau-erakusketa, euskal dantza-erakustaldia, txokolate-jana eta txerri-erretzea. Gainera, asteburu osoan pintxo-lehiaketa egingo dute tabernekin. Ondo pasa! ○

BIZILAGUNAK ALKAR EZAGUTZEKO

Bizilagunak-Aldameneko familia ekimena antolatuta Egizuk, Getxoko Etorrinak Plataformak eta Udalak. Bertako familiak atzeritik etorritakoak elkartu eta alkarregaz bazkaltzea da helburua. Azaroaren 17an egingo dira bazkariok, eta familiek beren errealtateez zein esperientziez hitz egin ahaliko dute. Gainera, dinamizatzaile baten laguntza izango dute, topaketa erraztu asmoz: kontua da gune informala sortzea, normalean beste pertsonen buruz estereotipoak baino ez ditugulako ezagutzen. Parte hartu gura dutenek, bai familiek, bai dinamizatzaileek, izena emon behar dute Herriarrak Artatzeko Bulegoetan edo Getxoko Udalaren webgunearen bitartez.

Info+: www.getxo.net/bizilagunak

IRAKURKETA-KLUBA ETA IDAZKETA-TAILERRA

Literaturagaz harremana daukaten ikastaro bi abiatu ditu Utopian eskolak: irakurketa-kluba eta idazketa-tailerra. Irakurketa-kluba hileko azken martitzenean egingo dute, 19:30ean; ekainera arte iraungo du eta 35 euro ordaindu behar da ikasturte osoa. Idazketa-tailerra, barriz, eguaztenean egingo da, 18:30ean; hori ere ekainera arte luzatuko da eta 30 euro ordaindu behar da. Parte hartzeko eskolagaz harremanetan ipini behar da.

Info+: 944 303 194 eta www.utopiangetxo.com

GETXON, BARRIRO ERE ZUZENEAN!

Getxon Zuzenean! egitasmoa barrero hasi da, udako geldialdiaren ostean: eguenero doako kontzertuak egingo dira hainbat tabernatan, 20:00etan. Hil honetakoak dira: azaroaren 7an, Rubia taldea Romoko Billares tabernan; hilaren 14an, Crazy Rock Bandist Algortako Jolasaurren; azaroaren 21ean, El hombre que fue lunes Areetako Aremunan; eta hilaren 28an, Charlatan Charlie Algortako The Piper's Irish Puben.

Info+: www.getxo.net

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Ximun Fuchs > *Hamlet* antzezlan barriaren zuzendaria

“Irudikatu dugu Hamlet gaurko gazte euskaldun bat bailitz: zer du esateko Euskal Herriaz?”

Shakespeare-ren *Hamlet* obra ezagunaren euskal bertsioa estreinatu barri dute Artedrama, Dejabu eta Le Petit Theatre de Pain taldeek, eta azaroaren 16an Kultur Leioan antzeztuko dute. Euskal Herrian eta XXI. mendean kokatzen da Xabier Mendigurenek egokitutako lanaren bertsio hau.

—Hamlet, gaur eta hemen; zer esan gura du horrek?

—Hiru taldeak elkartu ginen *Errautsak* lana sortzeko, arrakastatsua izan zen. Baina ezin genuen egin *Errautsak 2*, eta *Hamlet* egin dugu. Bere inguruan badira mila teoria: Freudek idatzi du hari buruz, Leninek... denek idatzi dute hari buruz. Esan da lehen protestantea izan dela, judua zela, homosexuala zela, emakumea zela, komunista... gauza asko esan da. Galdera asko pausatzen ditu: bai familiarren giroan, bai politikoki, justiziaren inguruan, ekintzaren inguruan, e.a. Orduan, guk muntatu dugu teoria bat: Hamlet gaurko euskaldun gazte bat. Edonork egin bezalaxe, edozein hizkuntzatan, baina guk erabaki dugu: Euskal Herrian zer esaten du Hamletek, gure historiarekiko eta izaerarekiko. Eta pasatzen da orain, ez Erdi Aroan. Normalean obra honek sei oren



Info+: www.hamlet.kz

irauten du, guk ordu eta erdiko antzezlan egin dugu. Beraz, hautatu dugu zerk daukan oihartzun gehien gaur egun Euskal Herrian; bi alde dira: bata familia, bestea alde politikoa. Sentitzen da gerla ez dela urrun, eta haren aztarnak baditu barruan, eta Hamlet saiatzten da justizia eramaiten, baina denbora guztia pasatzen du enigma horretan. Eta ikusle goak galde-tzen du: zergatik ez da ekintzara pasatzen? —Krudelkeria, boterea... obra iluna da?

—Ez dut uste. Shakespearek gauzak esaten ditu simple, argi. Bada bortizkeria, krudeltasuna eta tristura, baina bada ere alaitasuna eta bizipoza. Badira hainbat gatazka: Hamletek galderak pausatzen ditu eta publikoak erantzuten ditu.

—Zergatik aukeratu duzue *Hamlet*?

—Obra oso ona delako. Izango da gure Hamlet, gure izpirituarekin. Ez dut gehiagorik esango sorpresa delako, baina *Errautsak* lanarekin bada segida bat. ○

ArgIHizkiak gaztelekuan Argazkietan oinarritutako testu-lehiaketaren emaitza ikusgai hilaren 18ra arte



Nagore Ayo leioztarraren argazki bat ere jasotzen du erakusketak

ArgIHizkiak erakusketa gaztelekuan (Al-dapabarrena, 2) ikus daiteke azaroaren 18ra arte. Argazkiek osatzen dute erakusketa, irudi horietan oinarritutako euskarazko testuak batera.

Uribe Kostako 12 argazkilariren irudiak dira erakusten direnak eta testu mota bi daude: testu laburrak eta labur-laburrak. Lehiaketaren bigarren edizioa izan da aurtengoa.

Parte hartu duten argazkilariek dira: Fede Merino, Elker Azketa, Willy Uribe, Aitor Galbarriartu, Iker Basterretxea, Sara de Diego, Juan Gomez, Natxo Pedrosa, Eduardo Camino, Luis de Isusi, Peru Isasi eta Nagore Ayo leioztarra.

Testuen lehiaketa, barriz, ondokoek

irabazi dute: Galder Guenaga getxoztarrak eta Idoia Santurtun hondarribiarrak.

Eurek irabazi dute, baina ehundik gorra testu eta mezu jaso ditu lehiaketak, eta horietako batzuk ere irakur daitezke erakusketan. Hain zuzen, argazki bakoitzeko testu labur eta labur-labur bana: argazki bakoitzari idatzitako artean epaileen iritzi onenak direnak.

ArgIHizkiak antolatu dugu Egizu elkarteak eta UK aldizkariak, alkarlean erakunde eta elkarteak: Uribe Kostako Mankomunitateagaz, Berango, Erandio, Leioa eta Getxoko udalagaz, eta hainbat elkarteagaz (Getxophoto, Berbots, Berbalamiñe, Aitxul, Bizarra Lepoan, e.a.). ○

Info+: www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak

ARTISAU-AZOKA AZAROAREN 8TIK 10ERA

Bulebarren izango da Gastronomía eta Ikusmen Plazeraren azoka, azaroaren 8, 9 eta 10ean. Bertan elkartzen dira urtero dozenaka artisau, bai gastronomía alorrekoak, bai objektuak egiten dituztenak (hamaika material lantzen dituzte). Postuak goiz eta arrastiz zabalduko dituzte, leioztarrek eta gura duen orok artisau-produktuak dastatu, ikusi eta eros ditzaten. On egin danori!

ONDIZKO DORREAREN ERABILERA ZABALTZEKO ESKATU DU EHBILDUK

EH Bilduk proposatu du Ondizko Dorretxea Leioako elkarte eta herritarrei zabaltzeko. Koalizioaren aburuz, “bertan dagoen txokoa herritar guztiak erabiltzeko aukera izan behar dute berdintasuneko baldintzetan”. Era berean, “dorretxea egoitza sozial gisa erabiltzen duen elkarteagaz mesede jokabidea izan” duela Udalak. Ildo horretan, EHBilduk gogorarazi du Udalak dorretxea barriztatu eta berreskuratu duela orain gitxi, “horretarako diru publikoko inbertsio handia eginez”. Aipatu eskaerakaz mozioa aurkeztu du urriko Osoko Bilkuran.

Info+: leioa.ebildu.net

BOSTEKO ERAKUSKETA KULTUR LEIOAN

Azaroaren 12tik abenduaren 1era bisitatuko du Kultur Leioa Bosteko erakusketa ibiltariak. Aurten errealitatearen fikzioa da ardatza, eta Alvaro Gil, Juana Pozuelo eta Sra. Polaroskaren lanak biltzen ditu. Garcíak margoak erakutsiko ditu, Gilek sorkuntza artistikoak eta Sta. Polaroskaren lana zinema esperimentalak, ekintza artea, eszena sormena eta koreografiari buruzkoa da. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu du erakusketa eta lau herrik parte hartzen dute Leioaz gainera: Zornotza, Arrigorriaga, Basauri eta Getxok. Azken horretara abenduaren 3an eroango dute erakusketa.

Info+: www.kulturleioa.com

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargelzaleak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com

LUBERR
Basolanak SL
Lorezaintza

Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Zuhaitz Gurrutxaga Loiola > aktorea

“Futbolari buruz telebistan ikusten ez direnak nahi dizkiot jendeari erakutsi bakarrizketa honetan”

Futbolisto baten konfidentziak kontatuko ditu Zuhaitz Gurrutxaga Loiola futbolari ohiak Erandion, azaroaren 14an, Altzagako azoka zaharrean izango da bakarrizketa eta sarrera doakoa da.

—Zeintzuk konfidentzia egin ditzake lehen mailako futbol-jokalari batek?

—Beno, orain lau hilabete arte futbolari izan naiz. Ordura arte hainbat kategoriatan jokatu dut, lehen mailatik bigarren B mailaraino talde askotan. Kontatzen ditut futbolariak normalean kontatzen ez dituzten gauzak: zelai barruan zein aldageletan gertatzen direnak. Futbolariak beti izaten gara politikoki zuzenak, baina nik zuzentasun hori alde batera utzi eta sekretu batzuk kontatuko ditut.

—Esaten da futbolariok beti kontatzen dituzuela gauza berak, agian kazetariok ere beti berdina galdetzen dizuegulako?

—Egia da, prentsaurrekoetan beti gauza berdinak erantzuten ditugu eta kazetariok ere, askotan, antzeko galderak egiten dituzte. Hortik atera nahi dut eta ohiko topikoak alde batera utzi: “ez dago lehiakide txarrik, hiru puntu garrantzitsuak dira...”; aspaldi aspertu nintzen horrelakokak esaten eta kontatuko ditudanak beste asunto batzuk dira. Ordu eta hamar minutuko saioan egia kontatzen dut: bizita-



Argazkia: Omar Ulacia

ko esperientziak. Ez dut txisterik kontatzen, baina umorea erabiltzen dut. Adibidez, lehen mailan 19 urterekin debutatu nuen Errealarekin eta Clemente zegoen entrenatzaile: kontatzen dut zer esan zidan zelaira atera baino bost minutu lehenago; edo zelaitik botatzen zaituztenean zer sentimendu daukazu, e.a. Telebistan ikusten ez direnak nahi dizkiot jendeari erakutsi. Futbola aitzakia da: kontatzen dudana harekin lotuta dago, baina beste-lakoak ere kontatzen ditut. Adibidez, li-

gatzeko errazago dela lehenengo mailan jokatzeko baduzu. Hortik abiatuta beste bide batzuk hartzen ditut, baina abiapuntu dira futboleko gertatutakoak.

—Aktore moduan gustura zabilta?

—Azken hilabeteetan bizitzan aldaketa handiak gertatu eta aukera politikak suertatu zaizkit: ETB, *Hiru* antzezlan, bakarrizketak aurretik egiten nituen, musika talde bat ere badaukat... Probatzen ari naiz, ikusiko dugu zer dudak gustuko edo zertarako balio dudak gehiago. ○

Azaroan Lutzana topaleku

XII. Noviembre kulturala azaroaren 18tik 30era izango da, eskola zaharrean



Info+: www.plataformatirante.com eta kelitaldea.blogspot.com

Ikuskizuna hasiera doa Lutzanan: XII. Noviembre Kulturala ospatuko dute azaroaren 18tik 30era, eskola zaharrean. Aurtengo leloa: “*Desioa desiratzen*”. Plataforma Tirantek eta Keli taldeak antolatu dute eta ekitaldi danak doan dira.

Tailer batez abiatuko da ekimena, hilaren 18an: Hagitz elkarteak emongo du eta izenburua dauka: “*Pertsonak askatasunez sexexpresatzen direnean (Cuando las personas sexexpresan en libertad)*”. Aste barruan izango da, 20:00etatik aurrera.

Gainontzeko ekitaldiak, barriz, hileko azken aste akabu bietan egingo dituzte. Azaroaren 22an ikus ahalko dira: *La*

maquina del dueño antzezlan 22:00etan eta DJ goFreak! 23:00etan. Zapatuan, 23an: *Tu mensaje de animo aqui* performancea 19:00etan, *Las indomables* antzezlan 20:00etan eta *Niño feriante* musika-emanaldia 22:00etan. Eta domekan, 24an, *Cuando Martina encontro su historia* antzerkia 18:00etan.

Azken aste akabuan ere izango da ekitaldirik. Azaroaren 29an, film labur emanaldia 19:30ean eta Olaia & Anthony Dexter taldearen kontzertua 22:00etan. Hilaren 30ean, barriz, Irribarreka festa: *Miss Ovarios 33* antzerkia eta Laikasister DJ, 20:30etik aurrera. ○

APARKALEKUA EGINGO EI DUTE ASTRABUDUAN

Udalak aparkalekua egin gura du Astrabuduan datorren urtean, 300 autorentzako tokiagaz eta, kokalekua erabaki baino lehen, inkesta egin dute auzotarren artean: “*Astrabuduan aparkatzea benetako arazo dela jabetuta, hari konponbidea emateko neurriak hartu nahi ditugu*”. Hiru kokaleku posible ikertzen ari da Udala: Avanzada errepidetik gertu, itsasadar aurrean eta kiroldegi inguruan. Lurzoruen jabeakaz hitz egin eta inkestaren ondorioak atera ostean erabakiko dute aparkalekua non eraiki.

Info+: www.erandio.net

KOMERTZIO BERDEA PROIEKTUA MARTXAN

Udalak eta Erandioko Dendari-Taldeak Komertzio Berdearen Proiektuaren 3. edizioan parte hartuko dute. “Herriko dendarien lehiakortasuna hobetzea” da helburua, horretarako “*lehiakortasun abantaila bat indartzuz: Erandioko komertzioa arduratsua eta ingurumenagaz konprometitua izatea*”. Gainera, egitasmoan parte hartuko duten dendariak aholkularitza emongo diete “*kontsumoak gixtitzeko eta, horrela, energia aurrezteko eta kostuak murrizteko*”. Parte hartzaile kopuru mugatua izango da.

Info+: 944 170 747 eta merkataritza@erandioko-udala.net

XVI. HIRI-MARTXA ZIKLOTURISTA AZAROAN

Azaroaren 10ean egingo da XVI. Hiri-Martxa Zikloturista eta, urtero legez, Erandioko Txirindulari Elkarteak antolatu du. Martxa eguerdiko 11:30ean abiatuko da udalxetik eta zirkuituak 24 kilometro neurtuko du. Antolatzaileek diotenez, bataz besteko abiadura 12 kilometro orduko izango da. Parte hartzea doakoa da, baina martxa hasi baino ordu erdi lehenago emon behar da izena, urteera-tokian bertan. Animatu eta eragin pedalei!

Info+: erandiokote.wordpress.com



Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90 €

BEZ BARNE



cianoplan
global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

MUNARRI TALDEAREN AZAROKO URTEERAK

Munarri mendi-taldeak urteera bi prestatu ditu hil honetarako: bata 10ean, bestea 24an. Azaroaren 10ean Gasteizko mendietara joango dira mendizaleak: Monasterioguren herritik urten, Pagogan mendia (1029 metro) igo eta Okinara jaitsiko dira, eta horren ostean Ayuda ibaia jarraituko dute Sasetaraino; bertan amatuko dute ibilbidea. Hilaren 24an, barriz, Bizkaiko itzuliari helduko diote barriro eta, orainoan, zortzigarren etapa egingo dute: Ermuan hasi eta Kanpantzarreraino joango dira oinez, Erdella (683 metro) eta Intxorta (737 metro) mendiak zeharkatuz. Hartu makila eta aurrera!

Info+: www.munarri.com

AZAROAN ERE ZINEMA GENERO-IKUSPEGITIK

Hil honetan ere genero ikuspegitik aztertuko dituzte pelikula bi: *Hysteria* eta *Por nada* filmak (Itzartu emakume taldeak antolatzen du zikloa, Udalaren laguntzagaz). *Hysteria* (Tanya Wexlerrek zuzendutakoa) azaroaren 14an emongo dute, eguenean, eta *Por nada* (Mercedes Fernandez Martorell) hilaren 28an, biak 18:00etan. Gonbidapenak har daitezke kultur etxean azaroaren 4tik aurrera, pertsona bakoitzeko gehienez lau.

Info+: www.sopelaudala.org

BALLET-IKUSKIZUNA AZAROAREN 9AN

Lorealde eskolak ballet-ikuskitzuna eskainiko du azaroaren 9an, zapatuan, Kurtzio kultur etxean. Gainera, Royal Academy of Dance akademiaren diploma-banaketa ere egingo dute ekitaldian. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sartzea doakoa izango da, baina gonbidapena hartu behar da aurrez: azaroaren 2tik aurrera jaso daitezke kultur etxean bertan eta gehienez lau gonbidapen emongo dute pertsona bakoitzeko. Animatu eta hurbildu Kurtziora, horrelakoak ikusteko aukera gitxi egoten da-eta Sopelan.

Mural politikoaren topaketa

Azaroaren 9an egingo dute laugarrenez; hitzaldia eta kontzertua ere izango dira



Lemoizko zentral nuklearraren aurka Sopelan zegoen mural ezaguna

Aldarrikapenerako modu koloretsua dira muralak eta Sopelan badira lau urte topaketak egiten dituztela mural politikoak margotzeko. Herriko sei elkartetan parte hartuko dute aurten eta azaroaren 9an, zapatuan, ipini dute hitzordua.

Arrastiz lotuko dira, 16:00etatik aurrera, eta talde bakoitzak bere murala egingo du. Ekimen honez euren lana kaleratu gura dute eta, era berean, kolorea emon gura diete herriko hornei. Azaldu dutenez, "topaketa egiten dugu erakusteko herria bizirik dagoela eta aldarrikapen batzuk badaudela".

Arrastiz margotuko dituzte paretak eta, lanaren ostean, jairako tartea ere egongo da. Gaueko 21:30 aldera kontzertua izango da Jauregizar plazan eta, amaitutakoan, gaztetxean segituko du parrandak. Beraz, herritar oro animatu dituzte ekimenotan parte hartzera.

Baina bada gehiagorik. Aurten hitzaldi bat prestatu dute zapatua baino lehen. Astegunetan izango da Kurtzio kultur etxean eta militantziari buruz arituko dira hiru hizlari (Ezker Abertzaleko eta Gazte Komunistetako kide bana eta autonomo batek hitz egingo dute). ○

Endika Pina Blanco > margolaria

"Gordeta neuzkan margoak erakutsiko ditut orainoan: fantasiakoak"



Azaroaren 17ra arte erakutsiko ditu margoak Kurtzio kultur etxean

Bitxikerien laborategia izena dauka Endika Pina Blanco margolariaren azken erakusketa: azaroaren 17ra arte ikus daitezke getxoztarraren pinturak eta marrazkiak Kurtzio kultur etxean.

—Margoez osatzen dute erakusketa? —Badira olioak, akuarelak, marrazkiak (arkatza, tinta txinatarrak...) edota ilustrazioak. Askotariko materiala da; izan ere, Arte Ederrak ikasi nituen eta pinturan espezializatu nintzen. Orain arte gauza errealistagoak margotu ditut, baina orainoan gordeta dauzkadan bestelakoak sartu ditut: fantasiakoak, espontaneoak, paisaia onirikoak, ezinezko animaliak, pertsonaia arraroak... otutzen zaidana. Sopelarako margoak ez ditut erakusten normalean, niretzat gordetzen ditut, baina orainoan atara gura nituen. —Zelan sortu zitzaizun aukera Sopelan erakusteko lan berezi horiek?

—Beste toki batzuetan ere egin ditut erakusketa: Madril, Burgos, Berango,

Plentzia, e.a. Baina ilusioa neukan hemen erakusketa gehiago egiteko.

—Getxoarte jaialdian ere parte hartzen ari zara, ezta?

—Bai, Algortako kafetegi batean ipini ditut koadro batzuk.

—Ikusleei zer eskainiko diezu? Zer sentimendu eragingo diete margoek?

—Ez dakit. Agian misterioa, gauza arraroak dira, badaude ekialdean inspiratutako paisaia batzuk... irudimenak sortzen duena. Gauza batzuek ez daukate logika-

«Gauza batzuek ez daukate logikarik lanotan, ez dira ohiko koadroak»

rik eta ez dira ohiko koadroak; danetik sartzen dut, adibidez: ezinezko objektuak. Edo sinbologia bat sortzen saiatzen naiz, adibidez koadroan objektu konkretu bat sartuz. Niretzako sinbologia bat daukate, baina ikusleak bere erara interpretatuko ditu koadroak: interpretazio desberdinak izan ditzakete. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNÁ IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.



Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!

Bentlabu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

ABENDUAREN 1EAN SEIHERRI IBILALDI NEURTUA

Azkenean, abenduaren 1ean ospatuko du Seiherri elkarteak ibilaldi neurtuaren XXXI. edizioa. Egun horretan, ibilaldi zaleek aukera izango dute Berangoko mendiez gozatu, eta ostean, herri-bazkarian parte hartzeko. Aukera ezinhobea ondo pasatuz kirola egiteko.

BERANGO ANTZOKIAN ESKAINTZA ZABALA AZAROAN

Hilabetero legez, azaroan ere, eskaintza zabala dakarkigu Berangoko Udalak haurrentzako jarduerakaz. Hala, Berangoko umeez euskarazko filmez gozatzeko aukera izango dute; besteak beste: hilaren 3an, *Robots* ikusgai izango da arrastiko 18:00etan. Azaroaren 10ean, barriz, *Antzokiko istorioak* pailazoan antzezlanak ikusgai izango da 3 euroren truke, hori ere arratsaldeko 18:00etan. Azaroaren 24an, *Garaiz ikasi* txotxongilo emanaldia izango da umeentzat, eta hori ere ordu berean. Azkenik, hil amaieran, hilak 30, *Blackie eta Kanuto* filma ikusgai izango da, hori ere aurrekoen ordu berean. Azaldutako eskaintza guztia euskara hutsean izango da, guztiak Berangoko antzokian. Etxeko txikienean eskaintza albo batera utziz, hil honetan nagusiago direnentzako eskaintza ere izango da; hala, azaroaren 16an Genero ikuspegiko bertso-emanaldia ikusteko aukera izango da arrastiko 19:00etan antzokian; emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunaren harira antolatuta.

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Hirigintza-egitasmoak Arene eta Arebeta eremuen estetika hobetzeko hiri-antolamenduaren barri



Hirigintza-Antolamenduak Berangon aldeketa estetiko nabarmena proposatzen du

Berangoko Udalak herriko bi eremu industrialen urbanizatzearen kudeaketa berabiaraziko du, Arene eta Hegoaldeko Arebeta eremuetan, Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiko ekintzen barruan. Aurreikusitako lanek sarbideak hobetzeko balioko dute, hala, kamioiak herriaren erdigunetik pasatzea saihestuko dute. Gainera, Udalaren arabera, lan horiek etorkizunean gune horietan ezarriko diren jardura ekonomikoen instalazioei ere lagunduko diete, baita gaur egun dauden negozioei ere. Hala, abiatuko duten Hirigintza-antolamenduaren ara-

bera, bertan aparkalekuak sortuko dituzte, bi guneen baldintza estetikoak eta ingurumenekoak hobetu ere bai. Inbertsioari dagokionez, Udalak honakoa adierazi du: *“Abiapuntua urbanizatzeko gastuak txikiagotzea da, horretarako, zentzuzko inbertsioa egingo dugu”*. Antolamendu horren baitan, Gobela ibaiaren ondoan dagoen eremuaren uholde-arriskua murriztea ere aurreikusten da. Bestalde, Hiri-antolamendurako planak Otxandategi aldean iragartzen diren alaketak ere jasotzen ditu; besteak beste, 450 etxebizitza inguru eraikitzea. o

Ondarearen jardunaldiak > Aitz Oleagaren berbetan “Aurton, defentsa mekanismoen ondarea izan dugu ikusgai”



Aurrerantzean ere, bisita gehiago izango ei dira

Herriko ondarea ezagutzeko zenbait urteera antolatu barri ditu Gorlizko Turismo bulegoak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz. Aurtengoa baina ez da lehena, sei urte baitaroste horrelako urteerak antolatzen; Aitz Oleagak, urte-ara-arduradunak, azaldu legez: *“Urtero gauza ezberdinak erakusten saiatzen gara; aurton, lurraldearen defentsa egiteko ondare arkitektoniko militarari buruz arituko gara”*. Hala, antolatzailearen hitzetan, ibilbide horien bidez, defentsa sistemak gaur egungo ondare naturalari zelaz egokitu zaizkion aztertu eta zabaldu dute. Ibilbideetan parte hartu duten lagunek garai batean Gorliz herrian erabiltzen zizuten defentsa-sistemak ezagutzeko aukera izan dute *“Besteak beste, Karabineroaren postua, Azkorriagako gaztelutxoa eta Kostako bateriari buruz hitz egin genuen; Karabineroaren postua XIX. mendekoa da, Azkorriagako gaztelutxoa XVIII. mendekoa, eta karabineroaren postua 1950 urtekoa, Francoren garaikoa. Herrian bertan dauden lekuak dira, eta*

askotan ez ditugu inoiz bisitatu”. Oro har, antolatzaileen esanetan, urteerak egundoko arrakasta izan dute; guztira, 3 urte-ara izan dira, 2 orduko iraupenekoak, eta guztira 15 lagunek parte hartu dute: *“Herriko jende askok ezin izan du parte hartu, horregatik, aurrerantzean irteera gehiago antolatzea erabaki dugu, baina oraindik, ez dugu ezer zehaztu, aztertuko dugu eta ziur aski, beste batzuk antolatuko ditugu”*, aitortu du Oleagak.

Bestalde, antolatzaileak adierazi legez, bisitariak erraz harritzen dira inguruko ondarearen deskubrimenduakaz: *“Askok eta askok ez dituzte ezagutzen; gehienek Gorlizko hondartza ezagutzen dute, lekuri eta obikoentz; ostera, egiten ditugun ibilbideak ez dituzte ezagutzen; itsas argiraino joaten den ibilbidea, berbarako, Azkorriagako gaztelutxoa eta Kostako bateria ikus ditzaketena, hori, jende ugari ez daki herrian bertan dagoenik ere”*. Oro har, urteerak oso ondo balortu dituzte; bai ekimenaren antolatzaileek bai hurbildutako bisitariak. o

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

UKnatura
ZITEK PORTUGALSTE
ESCUOLA SUPERIOR DE NÁUTICA, PORTUGALSTE
MARIA DIAZ DE HARO, 68
48960 PORTUGALSTE (BIZKAI)

2013-2014 KURTSOA

- * BIOERAKUNTZA TALDEAK
- * ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- * BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- * ENERJIA BERRIZLAGARRIAK
- * HERAZI KAYAK

ETA AGOZ BEHIAKO
www.uknatura.org 092705471 / 646742241



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igieniztatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialk garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia
Ane Nafarrate Martin
Doctor Ianda 4, Sopela
Tf.: 946026779



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
- ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

ZILBETI ETA MENDIAUNDI, BIZITZAREN PREZIOA ARGAZKI-ERAKUSKETA

Kandelaria Kultur Elkartek SEO/BirdLifeK elkarteek eta Monte Alduide Koordinakundeak egindako argazki-erakusketa antolatu du: *Zilbeti eta Mendiandi, bizitzaren prezioa* izeneko. Erakusketan Alduide Mendia Babes Bereziko Eremuan dauden, bizi diren eta garatzen diren balio naturalak, jendea, herriak eta jarduera ekonomikoak jasotzen dira. Horrez gainera, erakusketak helburu du Nafarroako Natur Sare aberatsaren ekosistema argitan emotea; Bardeetako estepa idorretatik hasi, eta Pirinioko habitat alpinoetaraino. Erakusketan azaltzen diren inguru guztiak arriskuan daude; izan ere, harrobiak egiteko egitasmoen mehatxua dute. Hori dela eta, Gari Bilbao argazkilariak Zilbeti eta Mendiandi inguruetako erakusketa osatu du, aberastasunaren arriskuaz ohartarazteko asmoz. Erakusketa azaroaren 4tik 14ra ikusgai izango da Plentziako Goñi Portalen.

TXAKURREN GOROZKIEN AURKAKO ESLOGAN BILA

Txakurren gorozkien aurka kanpaina barria abiatuko du Mankomunitateko Ekogune zerbitzuak; helburua jabeek euren txakurren gorozkiak garbi ditzatela da. Kanpaina abiatzeko Mankomunitatea eslogan bila dabil, eta horretarako, herritarren parte hartzea eskatu du. Hala, egite honetan interesa daukatenek aukera izango dute euren ideiak, esloganak hurrengo helbidera bidaltzeko:

Info+: ekogune@uribekosta.org


aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Uribe Kosta

Mihiluze Uribe Kostan; hizkuntza eta kulturaren ezagutza lehiaketa bihurtua



Izena emoteko: www.mihiluzeuribekosta.com edota info@mihiluzeuribekosta.com

Hizkuntza eta kultura ondarea zabaltea da Mankomunitateak antolatutako Mihiluze Uribe Kosta lehiaketaren helburu nagusia. Lehiaketa Labayru ikastegiak sortutako “Zer ikusi Ha ikasi” unitate didaktikoan oinarrituta dago. Hala, unitate didaktikoa osatzen duten DVDak eta liburu-bildumek aukera emongo dute edukiak modu dibertigarrian lantzeko. Lehiaketa herritar guztiei zabalik egongo da; hortaz, lehiaketak kategorian bi izango ditu; “Mihiluze-Txiki” kategorian, 9-12 urte bitarteko gaztetxoek parte hartu ahaliko dute, eta “Mihiluze-Herritarrak” kategorian, barriz, gainerako lagunak lehiatuko dira. Lehiaketari hasiera emon aurretik, abendu aldera, hain zuzen, Mihiluze Uribe Kosta lehiaketan gainditu behar ko diren frogak prestatzeko ikasketamaterial berezia zabalduko da: testu, irudi eta bideoz osatutako multimediala-aurkezpenak, hain zuzen. Hala,

lehiakideen esku egongo da irabaztea; materiala zenbat eta hobeto ikasi, orduan eta errazago izango baita saria lortzea. Lehiaketaren antolatzaileek bost ataletan banatuko dute materiala abendutik martxora bitartean, beraz, ikastetxe, euskaltegi eta parte hartzeko

«Abendu eta martxoan bitartean materiala banatuko da; apirilean, barriz, lehiaketa jokatu»

interesa duen eragile orori materiala banatzeaz gainera, lehiaketaren web-orrialdean ere materiala argitaratuko dute. Behin materiala ikasita, lehiakideek apirilean ikasi dutena frogatzeko aukera izango dute, lehiaketa-kalera-tzeetan eta finalean, hain zuzen. Irabazle txikienek 7 lagunentzako Multiabentura goiza irabaziko dute, eta nagusiek lau lagunentzako dastatzeko menua. Mihia prestatzeko ueña da! ○

Aza. 4 - Aza. 19

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Zilbeti eta Mendiandi: bizitzaren prezioa.** Azaroaren 4tik 14ra. Goñi Portalen.
► **Araldiren argazki-lehiaketa.** Azaroaren 15etik 29ra. Goñi Portalen.

GETXO

► **Antzezaleak.** Azaroaren 16ra arte. Algortako azokan.

SOPELA

► **Laboratorio de rarezas (Endika Pina).** Azaroaren 17ra arte. Kurtzion.

LEIOA

► **Bosteko.** Azaroaren 12tik abenduaren 1era. Kultur Leioan.

ANTZERKIA

GETXO

► **Kontularien kluba.** Azaroak 8, 19:00etan. Algortako kultur etxean.

SOPELA

► **Ballet-ikusbizina (Lorealde eskola).** Azaroak 9, 20:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.

LEIOA

► **Cube dantza-ikusbizina.** Azaroak 9, 20:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.
► **Hamlet.** Azaroak 16, 20:30etan. Kultur Leioan. 10 euro.

GORLIZ

► **Pello Añorga ipuin-kontalaria.** Azaroak 16, 18:30etan. Sertutxenan.

ERANDIO

► **Txotxongiloak.** Azaroak 13, 18:00etan. Altzagako liburutegian.
► **Futbolista baten konfidentziak.** Azaroak 14, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.



Skolastikako zuzendari da Josune Muñoz

► Hitzaldiak

Greyren 50 itzalakaz apurtuz, Josune Muñoz

Hitzaldi interesgarriak eskainiko ditu Josune Muñoz filologo eta Skolastikako zuzendariak datozten egunotan, emakumeentzako literatura *Greyren 50 itzalak* baino gehiago dela erakutsiz. Getxon, azaroaren 6an ipini dute hitzordua, Algortako kultur etxean, 19:00etan; izenburua da: *Literatura erotica femenina: mas alla de las 50 sombras de Grey*. Azaroaren 22an, barriz, Muñozek Plentzian hitz egingo du *50 sombras de Grey y otros fenomenos extraliterarios* gaiari buruz, 18:30etan; Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Sailak antolatu du azken hori Plentziako Udalaren laguntzagaz.

• Non: Getxon eta Plentzian • Noiz: Azaroaren 6an eta 22an

► **Cotillas.** Azaroak 16, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

► **Crazy Rock Bandist.** Azaroak 14, 20:00etan. Algortako Jolasaurre tabernan. Doan.

MUSIKA

GETXO

► **Rubia.** Azaroak 7, 20:00etan. Romoko Billares tabernan. Doan.
► **Kimetz abesbatza.** Azaroak 9, 19:00etan. Algortako San Martin de Tours elizan. Doan.

PLENTZIA

► **Kantujira.** Azaroak 8, 19:00etan. Alde zaharrean.

LEIOA

► **Soema Montenegro.** Azaroak 8, 21:00etan. Kultur Leioan. 18 euro.
► **Marco Marchi & The mojo workers.** Azaroak 15, 22:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

ZINEMA

BERANGO

► **Oz, un mundo de fantasia.** Azaroak 9, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.
► **Amigos para siempre.** Azaroak 17, 18:00etan. Berango Antzokian.

GETXO

► **Un asunto real.** Azaroak 15, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.
► **Un gato en Paris.** Azaroak 17, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,10 euro.
► **Zinebiko filmak.** Azaroak 18, 19:30etan. Algortako kultur etxean.

SOPELA

► **Hysteria.** Azaroak 14, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.
► **Fredy Igeldegi.** Azaroak 17, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean.

ERANDIO

► **Los Pitufos 2 eta Cruce de caminos.** Azaroak 9, 17:00etan eta 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

BESTEAK

LEIOA

► **Ikusmen eta Gastronomía Plazeren azoka.** Azaroaren 8tik 10era. Bulebarren.

BERANGO

► **Genero ikuspegiko bertso emanaldia.** Azaroaren 16, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

GETXO


► **Hitzadia: Euskara eta Nabarrako estatua (Aitzol Altuna).** Azaroak 20, 19:00etan. Villamonteko kultur etxean.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA


[albuma]



Eskalatu herria

I. Street Boulder Topaketa egin zuten Gorlizen urriaren 20an; eskalatzeko ohiko guneetatik atara eta herria hartu zuten gizaki-armiamek. Eskalatzeko boulder modalitatean soka barik mugitzen dira horma txikietan: oztopoak gainditzea da kontua, ezker eskuin mugituz. Horregatik ibili ziren eskalatzaileak elizatik, etxeetatik... edozein horma izan daiteke-eta gainditu beharreko oztopo.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Hondoratzea

60 urte inguru

kosta aldean zen gertatu...

laino zerratuak Cabo Billanon...

untzi bat zuen hondatzen...

Cabo Quintres kabotaje-ontziak 1953ko maiatzaren 5eko gauean hondo jo zuen Cabo Billano inguruan, itsasbaterretik 200 bat metrora, Armintza parean. Hainbat eguneko salbamendu-lanek ez zuten arrakastarik izan eta, ohiko zuen Bartzelona-Santander-Pasaia-Bilbo ibilbidean, hura izan zuen azken bidaia. 38 gizonen osatutako eskifaia Billano lurmuturretik gertu ikusi zuten azkenekoz Cabo Quintres. Inguru horietako ur gardenetan murgiltzen diren gaurko urpekariek kontatzen dutenez behintzat, *han dago tinkaturik, goroldioak estalirik,* han topa daitezkeela oraindik ontziaren arrastoak, burdinak... Altxorrik ez ei zeraman...

*Eta hau hola ez bazan,
sar nazatela kalabazan...*

Plasentia Butroe Museoa utzitako argazkia

[berbetan]

Surfean modu profesionalean jarduteko, unibertsitaterako bidea, momentuz, alde batera utzi du txiki-txikitatik Sopelan bizi den Letizia Canalesek (Bilbao, 1995). Ia-ia Brasilerako hegazkina hartzekotan zela elkarrizketatu genuen surflari sopoloztarr gaztea. 2003an ROXY “Learn to Surf” kanpamendu antzekoan parte hartu zuen Loiola ahizpa bikotxagaz batera, eta handik urte bira, 10 urte ingurugaz, txapelketa-zirkuituetan lehiatzen zen. Ordurako argi zuen: (surfa) “*hau da nire bidea!*”. Surf munduan hain garrantzitsu diren bere babesleak: Roxy, Styling surfboards eta Hyunbisa-Hyundai

Leti Canales

Olatuak alde izan ditzazula!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zazpi urtegaz, non eta zer dela eta hasi zinen surfean?

—Gure familia beti hondartzan egoten da, eta nire ahizpa nagusi Victoriak ere txikitatik surfean egin du... Eta gu ere, Loiola (ahizpa bikotxa) eta biok, hala hasi ginen; lehenengo kortxo batekin, zutik jarriz... Gero, taula hartzen... beno, apur bat, lapurtu-edo egiten genion Victoriari (kar, kar). Loiola eta biok gabiltza surfean. Bera orain unibertsitatean dabil, baina betidanik nabil berarekin surfean, entrenatzen, beti elkarrekin; taldekide on bat izan da, eta gustura, oso-oso ondo! Nik aurtan unibertsitatean ez hastea erabaki dut. Erabaki hori hartzea oso gogorra izan da; ekonomia eta badakigulako zelan dagoen, oso txarto, eta ikasketak izatea oso garrantzitsua da, ikasi beharra dago. Baina, nik neure burua gogor ikusi dut surfean, orduan, topera! Horretan

buru eta gorputz! Ikasketetan ondo nabil, baina surfean uda honetan emaitzak oso-oso onak izan dira... Eta nire gurasoek ere ikusi dute, surfa dela nire bidea! Nire bide nagusia, garrantzitsuena. Beraz, ikasketei dagokienez, surf munduan esaten den bezala, “*stand by*” nago, geldiune

**“Surfa, lagunekin, dibertsioz-eta egite-
tik, zerbait gehiago ere badela kontu-
ratzen zara; orain ez da hori bakarrik”**

batean; baina, ez ditut utziko!

—Non ibili zara surfean?

—Zorte handia izan dut, eta bi aldiz joan naiz Australiara: pasa den urtean Munduko Txapelketa jokatzera, baina junior mailakoa zen, ez profesionalen mailakoa, eta horretan laugarren postuan geratu nintzen; eta aurtan, entrenatzen joan

naiz, hilabete erdi inguru... Alde batetik, iaz, hegoaldean egon nintzen, Melbourne ondoan, Bells Beach-en surfean; bertan WCT Munduko Txapelketa egiten da... Bestetik, Gold Coast-en egon naiz, Snapper ondoan, olatu ikaragarria da! Oso luzea eta ona! Bestalde, duela 2-3

urte Madagaskar alboko Reunion Uhartean (Afrika) ere ibili nintzen surfean. Orain marrazoak direla eta, han ezin dute surfean egin, baina egon nintzean zortea aldeko izan nuen, eta aprobetxatu! Hori ere olatu ona da. Gero, oro har, Europako hainbat lekutan ere, esaterako: Portugal, Frantzia eta Irlanda. Orain, “putzu-



tzarra” zeharkatu, eta lehenengo aldiz Brasilen egingo dut surfean, Hego Amerikan lehenengo aldia izango da niretzat.

—Juniorretik profesional mailara pasa barri zara. Aldaketa nabaritu duzu?

—Beno... Gogorra da, pasatzen zarelako surfa, lagunekin, dibertsioz-eta egitetik, beste zerbait gehiago ere badela konturatza. Orain, hori izaten jarraitzen badu ere, dagoeneko ez da hori bakarrik. Hori alde bat da, baina zure lana ere bada: zazpi orduz jardun behar duzu surfean, alde fisikoa lantzen, marketin alorrean... Dandanean, lana da, neure lana da. Gogorra da, ni horrela eta honengatik atera naizelako hezkuntza-sistematik, eta apur bat *“shock”*-a izan da... Baina, dagoeneko lasai-lasai nabil, apurka kontu guztiak antzematen... Eta aurrera!

—Txapelketako surfa aukeratu duzu. “free-surfer” izateko aukera ere badago... Gurean Kepa Acero lekuko. Zure gaztetasunetik bada ere, zergatik aukeratu duzu txapelketa mundua? Beste aukera hori guztiz baztertzen duzu?

—Irabaztea beti oso gogoko izan dut! Eta kontua da free-surfean jarduteko aukera munduan hizpalau pertsonen bano ez dutela. Oso zaila da horretan aritzea, ez da surf egitea bakarrik, marketina ere bada. Uste dut txapelketetan hobea naizela, marketinean baino! Beraz... Eta azkenean, neskek profesional mailan jarduteko urte gitxi batzuk baino ez dituzte. Orduan, nik txapleketen munduan aritzeko aprobetxatu nahi dut. Etorkizunean? Oso zaila da, gutxi dabilta free-surfean, eta neska bazara... Pentsa, halako webguneetako surf-bideoetan mutilak bakarrik ageri dira eta...

—Zein egoera bizi du emakumezkoen surfak?

—Gutxiesten dute, apurtxu bat...

—Apurtxu bat?

—Ez, ez; gutxiesten dute, bai. Estereotipo kontua da... Beti egon da diskriminazioa edo, ez dakit nola esan, bereizkeria hori. Eta gutxiesten dute, baina ezjakintasuna-

gatik, ez dutelako ezagutzen... Esaterako, zure hondartzatik ateraz gero, eta emakumezkoen bigarren mailako txapelketa batera bazoaz, australiarrak, amerikarra eta euskaldunak ere parte hartzen dugun halako lehiaketa batera, konturatuko zara maila gizonetzkoen parekoa dela. Betiko kontua da: *“Emakumezko surf erradikala ez dago...”* Ostera, apurka-apurka aldatzen

“Mundakan edo... olatu ona hartuz gero, ikusi-bizi duzu beste surflariek, gaineratik salto, eta nola lapurtzen dizuten”

doan kontua da, orain emakumezkoak badihardute surf erredikalean eta... Dandana, mutilen antzera! Gero, entrenatzen zaudean ere gertatzen diren kontuak ere badira, mutilek, surflari zaleak, olatuak kentzen dizkizutela... Beno, nire hondartzan, Sopelan, halakorik ez zait hainbestetan gertatzen, elkar ezagutzen dugu... Baina, Mundakara joanez gero, eta olatu on bat hartzen baduzu, hodi barruan egonda ere, ikusi eta bizi behar duzu nola beste surflariek, zure gaineratik salto, eta zeuk hartutako zeure olatua lapurtzen dizuten; eta beti aitzakia berberak jartzen dizkizute: *“ez zinenez heltzen...”*, *“ez zaitut ikusi...”* Bai, zera! Ondo baino hobeto ikusi zaituzte! Zu izorratzeko baino ez dute egiten! Emakume batzuk mutil batzuk baino hobek izateak izorratzen dituelako; eta ez

“Ez zinenez heltzen; ez zaitut ikusi” Bai zera! Neska batzuk mutil batzuk baino hobek izateak izorratzen ditu”

bakarrik surfean! Txikitari futbolean jokatzeko nuen eta gogoan dut, nahiko ona nintzenez, mutilek inbidia-edo zidatela, golak sartzen nituenean beti esaten zutela: *“noski, ez du sartuko bada, utzi egin diozue-eta!”*, beti bardin...

—Surf erradikala aipatuta, Punta Galeako Olatu Erraldioen txapelketan ez da

inoiz emakumerik egon. Natxo Gonzalez (azken ekitaldiko Plentziako irabazle gazteari) honen inguruan galdetu genioan, deblauki zure izena bota zuen, ez zekiela, baina agian...

—Surf erradikalean oraindik ez naiz ausartu... Laster hasiko naiz Meñakotzen sartzen, olatu handi horietan, taula handiekin, 3 metroko olatueta eta... Baina ez

da nire espezialitate gogokoena, txapelketan oso gustura nabil! Halere, Meñakotzeko esperientzia bizi eta gero, ea nolako den, bada agian, gero, batek daki, agian hurrengo urtean edo urte bi barru... Agian, Galeara joan ninteke... Baina, momentuz, ez!

—Oro har, harrobia zelan dator? Eta Uribe Kostakoa?

—Gaztetxoak badatoz bai! Sopelako PenaTxuri Eskola lan handia eta ona egiten ari da, eta Cabo Billanokoak ere bai. Neskatoak surf munduan sartzen animatzen eta prestatzen lan polita egiten ari dira. Eta horiez gain, Gizpuzkoan ere bai... Donostia eta Zarautz aldean, badira 10 urteko neskatxoak oso ondo dabiltzanak! Beraz, harrobia aurrera doa eta maila gora! Azkenean, eurekin ere lehiatu behar-

—Rias Baixasko (Galizia) bigarren postuak ahalbidetu zaitu Brasileko Munduko finalean parte hartzeko. Final hori jokatuko duen lehenengo euskalduna zara. Hara joateko hegazkina hartzekotan zaudela, zer sentitzen eta espero duzu?

—Mundu mailako txapelketa da, orduan munduko onenak doaz... Eta ni gogo handiz noa, ez noa oporretan edo ondo

—Momentuz, ezagutzen dituzunen artean, zein(tzuk) da surferako zure lekurik edo olaturik gogoena(k)? Eta gurei, Uribe Kostakoei eta ingurukoei zer iritzi diezu?

—Gogokoena Sopela, baina beno... Munduka ere bai; azken finean, Europako olaturik onena da-eta! Atzerrikoen artean, aipatutako Australiakoak, Sna-

“Munduko txapelketa da, munduko onenak doaz... Ni gogo handiz noa, ez noa ondo pasatzera bakarrik!”

pasatzera bakarrik! Negu eta uda honetan ondo, gogor, entrenatu dut eta, niretzat, Brasilerako txartela lortzea saria izan da! Ez dakit podium-era iritsiko ote naizen, ezin dut esan lortuko dudarik, baina, beno, agian bai... Oso zaila da hori aurrerikustea, han zaudela esan dezakezu... Pro junior txapelketa da, ASP zirkuituko, baina ez nago urduri, ez! Lasai noa. Uste dut hori dela garrantzitsuen, surfean lasai egiten badut ondo egingo dudalako, eta orduan emaitza ona lor dezaket.

—Zure gaztetasunean oraindik bete bako amets (egingarri) asko izango dituzu... baten bat aipatzearren:

—CT-ean sailkatzea, Europako txapel-

dun izatea, eta Mundukoa ere bai! (kar, kar, kar)

per-koak: olatu oso luzeak, beti dago ariketak gauzatzeko aukera, beti uzten dizu, egokia da horretarako... Eta han eta baldintza horietan entrenatu nuelako ere hobetu dut nire *“back side”*-a.

—Zure surflari gogoenak?

—Gogokoena Courtney Conlogue! Emakumezkoetan erradikalena delako! Eta gizonetzkoetan John John Florence eta Kelly Slater, ohikoak!

—Azkenik, gure jakinminetako berezia dena: zelako bizimodua daroa euskarak surfean?

—Gutxi egiten dugu, gehien bat ingelesez egiten dugu. Euskal Selektzioarekin egon nintzenean, orduan bai, momentu oro euskaraz egin genuen; oso ondo! Baina, ingelesa da nagusi...

Lorpen eta garaikur batzuk:

- 2005-2010 artean
- Euskadiko txapelketan Sub-12/ Sub-14 eta Sub-16an
- 2008
- Txapelketan Espainia mailako Sub-18an
- 2009
- Europa mailan lehiatzen hasi zen
- 2010
- Txapelketan Espainia mailako Sub-18an

—Daten ezin-bateragarritasun kontuagatik, ez du euskal txapelketan eta zirkuituetan parte hartze handirik izan; ezta aurten ere, lesioa izan duelako. Hala ere, lorpen garrantzitsuenak aurreko urtean eta aurten eskuratu ditu sopoloztarrak, besteak beste, aipagarrienak:

- 2012
- Txapelketan Espainia mailako Sub-18an
- Txapelketan Espainiako Txapelketa Absolutuan
- Europar mailako Txapelketako proba batean txapelketan
- 2013
- Txapelketan Espainia mailako Sub-18an
- Txapelketan
- Txapelketan Espainiako Txapelketa Absolutuan

- ASP Junior Series zirkuitu profesionalean:
 - Txapelketan Kanariar Uhartetako proban.
 - Hirugarren postua Sopelako proban.
 - Hirugarren postua Gijoneko proban (Asturias)
 - Hirugarren postua Royanen (Frantzia)
 - Txapelketan Rias Baixasen (Galizia)

—Rias Baixasko 2. postuak ASP zirkuituko sailkapen orokorreko 2. postura eroan zuen, eta horrek azaro hasieran Brasilen jokatzen den finalerako txartela emon dio; halakoa jokatzeko lehenengo euskalduna da.



adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

uk@aldizkaria.biz

*(sinatuta eta gehienez 330 berba)



PEDRO PEREZ

Plentziako kultur etxean ikus daiteke *Zilbeti eta Mendiandi: bizitzaren ordaina* erakusketa: Zilbetiko pagadiko eta Mendiandiko larreetako (Nafarroa) argazkiak dira. Biak daude gune babestuan, Alduide Mendia Babes Bereziko Eremuan. Halere, meatze-ustiaketa proiektuak gauzatu gura dituzte bertan, eta hainbat ekimen egin dituzte, berauen defentsan: margoketak errepidean edota *Guernica* koadroa margotzea zuhaitzetan.

Bizitzaren ordaina

Argazkiak:

Brian Webster, Edu de la Parte, Gari Bilbao, Jose Etxegoien eta Pedro Perez



BRIAN WEBSTER



BRIAN WEBSTER



BRIAN WEBSTER



EDU DE LA PARTE



GARI BILBAO



GARI BILBAO



PEDRO PEREZ




GARI BILBAO

Kondor Legioa > atzera begiratzeko beharra

Faxismoaren aztarnak gurean: Kondor Legioaren azalpen eta irudiak

Baskale Elkartea eta Lau Haizetara Gogoan plataforma Kondor Legioaren historia kontatzen duen erakusketa herriz herri zabaltzen dabilta, memoria ez galtzeko, hura betiko gordetzeko. Hilaren 17ra arte, eskualdean izango da Algortako Abian elkartean, hain zuzen.



Naziek Kondor Legioaren aire-indarraren bidez Francori lagundu zioten

Gurean gertatutakoa ez ahaztea dute helburu Baskale Elkarreak eta Lau Haizetara Gogoan plataformak. Iraganari begiratzera ona ei da, etorkizunean egindako akatsak ez errepikatzeko, kasu honetan, horrelako sarraskirik ez errepikatzeko. Eta bide horretan, memoria gordetzen saiatzen diren bi elkarte horiek egia, justizia eta erreparazioa dituzte zutabe nagusi. Zutabe horiek lortze bidean, Kondor Legioa erakusketa antolatu dute;

izan ere, elkarteko kide den Klaus Armbrusterrek adierazi legez, *“Gernikan gertatutakoak, gurean izandako bonbardaketa guztiak, gerra krimenak izan dira,*

planifikatuta eta asmo txarrez egindakoak.” Gainera, antolatzaileek argi utzi gura izan dute memoria historikoa lan-

Memoria gordetzen duten elkarteek justizia, egia eta erreparazioa ardatz

tzea ez dela mendekua bilatzea, zauriak ixteko bidea egitea baino, biktimen onarpena lortzeko bidea urratzea, alegia.

Bilbotik Berlinera

Erakusketa osatzeko ideia 2012an sortu zen: Euskal Herriko Baskale elkarteko 11 lagun Alemaniara joan ziren oroimena gordetzen duen bertako talde batek gonbidatuta. Bertan, orain dela 25 urte Kondor Legioa aztertzen zuen Hanno-



Gernika, 1937an bonbardatua

verreko historialari taldea ezagutu zuten, Euskal Herria bonbardatu zuen aireko legio bera aztertzen zuena, hain zuzen. Orduan, batutako informazio gaz historialari alemaniarrek liburu bat argitaratu barri zuten; eta Baskale taldeak euskarara eta gaztelaniara itzultzea erabaki zuten, hemen zabaltzeko asmoz. Erakusketa

egindako lan horren fruitu izan da; *“Etorkizuna eraikitzeke jakin behar dugu zer gertatu zen, noren ardura izan zen. Euskaldunek egia jakitea merezi dute, baina alemaniar gehienek ez dute jakin edo onartu nahi. Espainian bezala. Zubiak eraiki behar ditugu, hori da gure lana”*, adierazi du Armbrusterrek, Baskale

elkarteko kideak.

Argazki zein azalpenak

Erakusketa 16 panelez osatuta dago; bertan, Kondor Legioaren argazkiak ez ezik azalpenak ere badira; zelan hasi zen legioa, zeintzuk izan ziren bere helburuak, non eta zelan parte hartu zuen, baita Bigarren Mundu Gerran aztarnak ezabatzeko nola ahalegindu ziren ere azaltzen da. Erakusketan ageri diren azalpenak, horiek guztiak testuinguruan kokatzen

Guztira 16 panelez osatuta dago erakusketa; argazkiez zein azalpenez

dute ikuslea. Oro har, interesatuek ikusgai izango dituzten argazki eta azalpenetan Euskal Herrian ezaguna dugun Gernikaren suntsitzea erakusten da, bai biktimen ikuspegitik bai Kondor Legioaren ikuspegitik; hau da, legioak lortutako arrakasta zelan adierazi zuen ere ikusi ahalko da. Gure historiako pasarterik eta ilunenak modu grafikoan ezagutzeko aukera ona da honakoa, iraganari begiratzera etorkizuna eraikitzeke. ○

Klaus Armbruster > Baskale, eusko-alemaniar elkarte sozio-kulturalako kidea

“Garaietarak ez dituzte onartu nahi egindako sarraskiak; ez Espainiak, ez Alemaniak, horregatik informatu behar dugu”

—Zer da erakusketa irakasten duena, zein da zure ustez aipagarriena?

—Guretzat bertan azaltzen den daturik esanguratsuen, besteak beste, honakoa da: Alemania eta Espainiaren arteko kolaborazio militarra Franco eta Hitler baino lehenago hasi zela, Rif gudan hain zuzen ere. Espainiak gerra koloniala ia-ia galduta zeukala, alemaniarrek gas pozoitsua bidali zieten, bertako erresistentzia hiltzeko eta Espainiak kolonia man-

ten zezan. Erakusketan Alemaniaren berarmatze ilegala ere aipatzen da, batez ere, aire-indarrez osatutako berarmatzea. 36ko kolpe militarrean, naziek ezinbesteko laguntza emon zioten Francori, barbarako, alemaniarrek hegazkinez ekarri zituzten Francoren tropak Marokotik eta Tenerifetik penintsulara, baita Kondor Legioak ere bonbardaketak egiten jarraitu zuen 1939ra arte. Hori gutxi balitz, Francok Legio horrek Ipar fronte-

an nahi zuena egin zezakeela adostu zuten. Beraz, bertan egindako operazio militar guztiak naziei baliagarriak izan zitzaizkien, ondoren II. Mundu Gerran erabiltzeko; izan ere, naziek Varsovia, Coventry, Londresen egin zituzten bonbardaketako hegazkin bakoitzean gutxienez Kondor Legioko piloto bat zegoen hasiberriei irakasteko asmoz. Baina, nahiz eta inplikazioa agerikoa izan, 50eko hamarkadan haien parte hartzea

36ko gerran ezkutatu zuten. Gaur egun, oster, legioa sortu zen hegazkin basea mantentzen da. Museo txiki bat ireki zen Junkers 52 hegazkinaren omenez. Hannover inguruan dagoen historialari taldeak ikertu eta aztertu zituen datu horiek guztiak, eta haiei esker, gaur egun, badakigu hori.

—Zer dela-eta erakusketa antolatu?

—Aspaldi hasi ginen maila honetan lan egiten, beste talde batzuekin: Ahaztuak, Sare antifaxista, Lau Haizetara Gogoan, Gernika-Batzordea. Guretzat garrantzi bikoitza dauka: alde batetik, egia bilatu nahi dugu, gerra galdu eta diktadura sufritu zutenentzat eta biktima izan zirentzat oso garrantzitsua baita; beste alde

batetik, irabazleek ez dituzte onartu nahi euren sarraskiak; ez Espainiak ez Alemaniak. Horregatik informatu behar dugu 76 urte ondoren, eta ardurak eskatu behar ditugu, Berlinen, Madrilan eta Argentinan.

—Algortako Abian elkartean azaroaren 17ra arte, eta ondoren?

—Erakusketa izango da Algortan azaroaren 17ra arte, eta hilaren 7an hitzaldia egongo da. Algorta ostean, Donostiara joango gara, udaletxe azpian dagoen liburutegira hain zuzen. 2014an Hernanin, Durangon, Gernikan, eta berriro Donostian; leku askotan... Hala ere, oraindino ere, posible da erakusketa eskatzea ez baitago guztiz okupatuta. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO




GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

ZINEBI 55ek aurkezten du:

Hilaren **15etik 22ra** egingo den zinemaldiak sail ofizialean **67 lan** eskainiko ditu



Info+: www.zinebi.com

Bilboko Bilboko Zine Dokumental eta Film laburren Nazioarteko Zinemaldiak, Zinebi, 55. ekitaldia beteko du aurten, azaroaren 15etik 22ra eskainiko dituen jarduerakaz. 3.367 lan aurkeztu dituzte aurten lehiaketara, "horietatik 115 Euskadin ekoitziak, iaz baino %47 gehiago". Aurkeztutako danen artean aukeratutako 67 lehiatuko dira Sail Ofizialeko Mikeldi saria lortzeko; hautatuen arteko 8 Euskal Herrian ekoitziak.

Horrez gainera, Bertoko begiradak sailean, azken boladako bertoko beste 8 ekoizpen eskainiko dituzte, horien artean Alvaro Fierroren eta Joseba Gorordoaren *160 metros: una historia del rock en*

Bizkaia, 80ko hamarkadan itsasadarraren alde bietan zeuden musika-taldearen barri jasotzen duena, eta orduko hainbat kide bilduko dituen kontzertua ere antolatuko dute. Oro har, Bilbon izango diren emanaldi guztietarako hitzorduak eta lekuak hainbat dira... Bestalde, aurtengo Ohorezko Mikeldi Sariak Agustin Diaz Yanes eta Manuel Gutierrez Aragon zi-

«Getxon hainbat lan ikusteko aukera egongo da»

negileentzat izango dira.

Gure eskualdean ere Zinebiko hainbat lan ikusteko aukera egongo da, hain zuzen Getxon. Villamonte kultur etxean izango dira emanaldiak, hilaren 18an eta 19an, 19:30ean (sarrera doan). "*Lehiaketako euskal filmen aurkezpena eta lehiaketatik kanpo dagoen Infoeuskadi ataleko programetako bat emango dira*"; filmen artean hauek: *Sangre de unicornio* (Alberto Vazquez), *Hotzanak, for your own safety* (Izibene Oñederra), *Democracia* (Borja Cobeaga), *Colera* (Aritz Moreno), *3665* (Miguel Angel Refoyo), *Sonic trash* (Jesus Pueyo), *Loco con ballesta* (Kepa Sojo) eta *Zela trovke* (Asier Altuna). Lehenengo biak animazio-lanak dira, azkenak dokumentala eta gainontzekoak fizikiozkoak. ○

Musiketan abian da

Ekainera bitartean, formatu txikiko bira-
eskaintza aurten **13 kontzertuk** osatzen du



Hilaren 10ean, Bruce Cockburnen kontzertua egongo da. Info+: www.musiketan.com

Formatu txikiko birak antolatzen eta eskaintzen dituen Musiketan zikloa martxan dago dagoeneko; modern swing idelako mugimenduko artista esanguratsuenetakoa den Alice Francisek emon zion hasiera aurtengo eskaintzari pasa den hilean. "*Gure ametsetako musika entzun*" asmoz antolatzen den ekimen honetan "*usain zaharkituko abestiak entzungo dira, garai berriei aurrez aurre so egiteko; Atmosfera biziak, sutsuak, sakonak, emozioa eragiten dutenak. Avantgarde ikuspegitik abiatuta ohiko musikarekin hamahiru hitzordu...*". Hala, bada ekaina bitartean, hurrengo musikarien

kontzertuakaz gozatzea Bilboko BBK aretoan: azaroaren 10ean Bruce Cockburn (jazz, rock eta reggae), eta 24an Pamela Hute (popa), abenduaren 1ean Dena Derose (jazza), urtarrilaren 19an Elliot Murphy eta Olivier Durand, otsailaren 2an Attwenger (Austriako popa eta hip-hop), otsailaren 16an Lovely Rita, martxoaren 16an Badi Assadek (fusiozko world beat eta jazza), martxoaren 30ean Phil Cunningham & Aly Bain, apirilaren 13an Gael Faure (folka), maiatzaren 4an Danni Leigh, maiatzaren 18an Jennifer Batten (popa) eta ekainaren 1ean Madison Violet. ○

kontzertua > Bilbao Hiria

Bilbao Hiria Pop-Rock Lehiaketako 25. ekitaldiaren baitan, lehiaketako kontzertuez gainera, emanaldi bereziren bat edo beste antolatu dute. Horien artean, hurbileko kantari eta talde ezagunak protagonistak izanda, aipatzekoa da hilaren 16rako, zapatua, iragarri duten pop-rockeko kontzertu berezia: Mobydick, The Great Barrier eta Las Culebras taldeek joko dute zuzenean Bilborock aretoan. Emanaldia iluntzeko 20:00etan hasiko da, eta sarrera doan izango da.

Bestalde, Bilbao Hiria Pop-Rock Lehiaketaren baitako kontzertuakaz ere gozatuko aukera dago oraindik.

Info+: www.bilbao.net

azoka > BIME

"Profesionalei zein publiko zabalarri zuzendutako nazioarteko musika-azoka da" BEC-en (Bilbao Exhibition Centre-en) hilaren 19tik 23ra egingo den BIME (Bizkaia International Music Experience). Antolatzaileen esanetan: "*Musikaren industriaren eragileak zein teknologia berrienak edota moda arlokoak elkartu eta euren arteko harremanak sustatzeko espazioa izan asmo du BIMEk, negozio berriak sortzeko zein esperientziak elkar trukatzeko. (...) musika sektoreko enpresen merkatu bat ere egonen da (diskoetxe, jaialdi, plataforma digital, gizarte-sare, eta trebakuntza-zentro ugariak, besteak beste, euren jarduerak, azken berriak edota euren produktuek zuzenean salduko dituzte) eta, asteburuan, zuzeneko emanaldiak*". Horien barri:

Info+: bime.net/eu

diskoak

Demasiado tonto (...)
El Drogas
Maldito Records



Beste behin, Flako Txarreña, Txus Maraví eta Brigi Duke lagun dituela, *Demasiado tonto en la corteza* da Enrique Villareal "El Drogas"-en disko barria. Barricadako abeslari ohi eta Txantreako musikariak zortzina abesti jasotzen dituzten hiru ataletan banatu du lana, atal bakoitza honela azpizendatu du: Alzheimer, Matxinada eta Y Glam.

Indar bat dabil hor
Mikel Markez
Elkar



Mikel Markez kantariak (Errenteria, 1971) hamargarren diskoa kaleratu du, eta horretarako lagunez inguratu da, besteak beste: Xabier Amuriza, Josu Zabala (esku-soinua), Arkaitz Miner (gitarra, biolina), Amaiur Cajarraville (kontrabaxua), Alaitz Telletxea (soinu txikiak), Goizon Barandiaran (ahotsa), Baxenabarreko Aire Ahizpak, Benito Lertxundi e.a.

Errekan gora
Jexuxmai Lopetegi
Baga Biga



Hamalau kantuk osatzen dute Zarazuko musikariaren seigarren lana. Bere eskutik sortutakoez gainera, besteak beste Harkaitz Cano, Joseba Sarrionandia, Mixel Murua, Jon Benito edo Pako Aristiren letrakaz ondu ditu diskoak abestiak, eta Antton Olariagak egin dio azaleko irudia. Lan barria aurkezteko lehen kontzertua hilaren 8an emango du Zarazuko Modelo aretoan.

uk

**zure
publizitatea
hemen !**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regarizar@euskalnet.net
www.garizar.biz
Illeta kalea 1 • ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Martxan Literatura Eskola

Larrabetzun abiatu du **10. ekitaldiak** lehenengo **eskola** eguna; bizi literatura!

Hamar urte "irakurleen literaturarako grina hauspotzen eta elikatzen" daroa Larrabetzun jaiotako Literatura Eskolak. Urteotako ibilaldiak ibilbidea ere zabaltzen du, eta bide barrietan, ibiltari bihurtuz, Euskal Herriko hainbat lekutan antolatzen eta eskaintzen ditu eskolak. Antolatzeko lanen gainean, azaldu dutenez, "urteurren biribil horri indarrez ekiteko eta orain arte egindako ibilbideari jarraipena emateko, literaturaren inguruan lanean dabiliz hainbat talde bildu gara: EIZIE eta Eleanazi, Gotzon Barandianan (Literatura-Eskola), EHAZE, EIE, Sareinak eta UEUko Literatura Saila".

Lehenengo eskola-egunean, urrian, *Ander Lipusen antzerkigintza* gaiaz jardun zuten Larrabetzun Jaime Valverdezagaz; au-

«Zitak: azaroak 16, abenduak 14, urtarrilak 18, otsailak 15, martxoak 15 e.a.»

rrerantzean ondorengoak dira Literatura Eskolaren gaiak eta hitzorduak: *Txinako literatura garaikidea* Maialen Marinek gidatuta (azaroaren 16an, Zarauzko Sanzenea kultur etxean), *Amaita Lasaren alfabeto berria* Josune Muñoz gidari (abenduaren 14an, Bilboko Alhondetxean), *Ramon Saizarbitoria eta iragana* Markos Za-



Harremanetarako: eskola@literaturaeskola.org

piain hizlari (urtarrilaren 18an, Oretako Mikelazulon), *Joseba Sarrionandia: itsasoa da bide bakarra* Eider Rodriguez solaskide (otsailaren 15ean, Pausuko Xaia ostatuan, Urruñan), *Harrikoa eta literatura* Inma Erreak eta Irati Jimenezek zuzenduta (martxoaren 15ean, Iruñeko Euskaldunon Biltokian), *Abangoardiak euskal literaturan* Iñigo Aranbarri mintzalari (apirilaren 12an, Durangoko udal-liburutegian), *Euskarari ekarritako poesia* Gerardo Markuletaren ahotik (maiatzaren 10ean, Oretako Mikelazulon). Hitzorduen eta izen-emotearen gaineko informazio gehiago: ○

Info+: www.literaturaeskola.org

liburuak



Genero-arietak (...)

Hainbaten artean
EDO

Hainbaten artean landu, batu eta itzuli dituzte Genero-arietak. Feminismoaren subjektuak lanean jasotako idatziak. Diotenez, "helburua ez da (trans)feminismoan ekarpen berriak egitea, ezta testu esanguratsuenen bilduma egitea ere. Gogoetan lagundu ditugun ahotsak ekarri ditugu..."



Adiskide bat nuen

Joxean Agirre
Elkar

Literatura-irakaslea narraizale duen lana ondu du Agirrek (Azpeitia, 1949), eta "1968ko maiatzean edo Burgoako epaiketan 20 urte inguru zituztenen belaunaldia" zelanbait gorazarre egiten dion fikzio-lan ironiatsuak klandestinitatea du ardatz, eta erbestea bidelagun.

[kirola]

Lucia Ybarra > belar-hockey jokalaria

"Rioko Olinpiadetarako entrenatzaileak neu gogoan izatea asko gustatuko litzaidake"



Espainiako Selekzioagaz bosgarren postuan lotu zen

Getxoztarra eta Errealeko belar-hockey jokalaria. Txikitatik aritu da kirol honetan eta joan den uztailean emakumezkoen Espainiar Selekzioaren deia jaso zuen Europar lehiaketan debutatzeko.

—Zelan hasi zinen belar-hockeyan?

—Nire neba nagusiak jokatzeko zuten eta bizitza osoa bera ikusten... ahizpa eta biok ere animatu ginen.

—Zer emoten dizu hockeyak?

—Egunero ematen dit zerbait. Aurkitu ditudan pertsona guztiak zoragarriak dira eta talde-lan balioak nire bizitzan oso garrantzitsuak izan dira, lan konpromisoa bezala, fisikoki ere bai, noski.

—Zein izan zen zure lehenengo sentsazioa europar txapelketan jokatu zenuela esan zizutenean?

—Poztasun ikaragarria eta harrotasuna. Ez nuen espero selekzioan egotea eta deitu zidatenean ustekabe galanta izan zen. Nire planak aldatu eta entrenatzaileak agintzen zidan gauzetan ehuneko ehuna eman nahi nuen. Hainbat urtetan kirol

honetan egindakoen saria izan zen.

—Zapore onez bueltatu zinen? Pozik emaitzagaz?

—Bai, egia esan, espero nuena. Gure helburua gutxienez bosgarrenak izatera heltzea zen, eta horrela geratu ginen. Nik neuk asko eskatzen diot nire buruari, baina argi dago beste maila bat dela.

«Politena nire ahizpa Atenaseko Olinpiadetan ikustea izan zen»

—Kirol honek emon dizkizun momentu guztietatik, zeineguz geratu zinateke?

—Askok dira, baina guztietatik politena nire ahizpa bikia 2004ko Atenaseko Olinpiadetan parte hartzen ikusi ahal izatea.

—Zeintzuk dira zure etorkizunerako kirol-egitasmoak?

—Oraingoz Errealekin liga irabaztea. Nazioarte-mailan berriz, guztia ematen jarraitzea eta Rioko Olinpiadetara joateko entrenatzaileak neu gogoan izatea asko gustatuko litzaidake. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Sarai Montes eta Ares Piñeiro > Errespetuz elkarteko kideak

“Utz diezagutela erabakitzen gure gorputzari buruz inolako presio barik”

Urriaren 21ean izan zen Transexualitatearen Despatologizazioaren eguna eta Errespetuz elkarteak hitzaldia emon zuen Villamonteko kultur etxean. Transexualen babeserako eta integrazioerako euskal elkarte da Errespetuz, eta Eusko Jaurlaritzaren Berdindu zerbitzua kudeatzen du: transexualen, eta euren senide eta lagunaren arretarako zerbitzua da.



Info+: 675 459 317, www.errespetuz.blogspot.com eta errespetuz@errespetuz.org

—Zer eskatzen da Transexualitatearen Despatologizazioaren Egunean?

—Besteak beste, patologia-gidaliburutik atara gaitzatzela behin betiko; NANean izena eta sexua aldatu ahal izateko, aurrez urte biz tratamendua egin behar ez izatea; pertsona intersexualei ebakuntzarik ez egitea eurek erabaki bitartean (jaio barritan egiten diete-eta); gure gorputzei buruz erabakitzen utz diezagutela inolako presio politiko eta ekonomikorik, eta mediku-behartzetik gabe. Izan ere, ume intersexual bat jaiotzerakoan, medikuek hankartean zer daukan begiratu eta hori zer den ez dakitenez, alua edo zakila egiten diote. Gurasoek erabakitzen dute zer gura duten: neska edo mutila. Zer gerta daiteke gero? Ume horren generoa eta sexua bat ez etortzea.

—Horri buruz ari zarete medikuntza-prozesuen bortxa aipatzen duzuenean?

—Bai, eta beste honi buruz: guk protokolo bat jarraitu behar dugu-eta aldaketarako. Adibidez, gizonen kasuan: lehenengo titiak kendu, gero barruak hustu eta azkenik sexu-organoa egin. Baina nik umeak sabelean hazi gura baditut, aita umeduna izan gura badut, ez didate uzten, obarioak kentzera behartzen naute. Botikak emoten

dizkigute obarioak atrofiatzeko; gizon transexual bat umedun, eskemak apurtzea litzateke-eta. Horregatik aldarrikatzen dugu erabakitzen utzi diezagutela noraino iritsi gura dugun, baita hormonak hartu gura ditugun edo ez. Izan ere, agian ez dut hormonarik hartu gura eta gizon sentitzen naiz hormonarik hartu gabe, bizarrik

dezatela hemen gaudela eta lagun ditzakegula.

—Hezkuntza aipatu duzue, transexualitateaz hitz egiten da ikasleakaz?

—Berdindu zerbitzua hasi da mintegiak emoten irakasleentzat, afektibo-sexual eta nortasun-sexualaren arloei buruz. Ikastetxeetan ere emoten ditugu hitzaldiak,

“Jendarteak ulertzen duenean badaudela zakildun emakumeak eta baginadun gizonak, aurrerapauso itzela izango da”

gabe... gizon izateko nire eran.

—Zein da Errespetuz-en egitekoa?

—Pertsonak aholkatu eta lagundu, sentibilizazio soziala, talde-ekimenak... Hitzaldiak emoten ditugu, kontzentrazioetan parte hartzen dugu, e.a. Gurasoei eta hezitzaileei ere emoten dizkiegu hitzaldiak. Egoera honetan dauden pertsonak jakin

ume transexual bat dagoela-eta horrela eskatzen digutenean, e.a.

—Bide luzea dago pertsona transexualen eskubideen errespetua lortzeko?

—Bai, ezjakintasun handia dago. Baina jendarteak ulertzen duenean badaudela zakildun emakumeak eta baginadun gizonak, aurrerapauso itzela izango da. ○

Aritz Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Gaueko. Ilustrazioa: Daniel Castello

Gauekoren olerkiak

Egunero gertatu ohi denez,
Ekhi amalurraren barnealderatz bueltatu da
Argitasuna badoa, bere lekua itzalei utziz.

Gaur bidea luzeago egin zait,
eta oraindik legua batzuk falta dira
baserriaren babesean egoteko.

Berehala, iluntasunak inguratzen nau;
ez dut ezer ikusten, ez dago inongo soinurik.
Zer demontre gertatzen da? Galdetzen diot nire buruari.

Hasieran arinago; handik gutxira korrika egiten.
Nahiz eta saiatu, ez dago inongo irtenbiderik.
Eta txarrena, badakit horrela dela.

Azkenean nire hankak gelditzen dira,
neure buruari kasu egin barik.
Eta orduan infernuko ahotsa entzuten dut:

“Eguna egunekoarentzat;
gaua gauekoarentzat”

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx. txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarrri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



JAN-TOKI ORMAZABAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



LURREN

GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Gaztaiaren bizitasuna

zapore indartsuek eztanda egiten



10 minutuan erraz egiteko pintxoa da honakoa

Sopelara hurbildu gara oraingoan, Romoko Gure Etxea tabernako pintxo gozoak atzean utzi, eta Sopelako Lurren tabernako lagunei bisitan joan gatzazkie: hango barran pintxo ederrak bezain errazak topatu ditugu. Gaurkoan, baina, gazta urdina duen pintxoak dakarkizugu; honako pintxoak egokia da lan asko egin barik ospakizunetan arrakasta lortzeko. Pintxoagaz hasteko, lehenengo eta behin, ogi xerra bat moztuko dugu, beharrezkoa da ogia "txapata" erakoa izatea; mota honek gainean jarriko ditugun osagai eusteko sendotasun nahikoa du-eta. Ogi-xerraren gainean, gazta urdin krema zabalduko dugu, xerra osoan zehar krema laban bategaz. Horren gainean, cherry-tomate bi jarriko ditugu; bat erdibituta,

eta zatitxoak gainean jarriko ditugu; bestea, berriz, gaztagaz beteko dugu eta uhaza zati txiki bategaz beste aldean jarriko dugu. Behin, tomate txikiak pintxoan kokatu ditugula, azken osagaia jarriko dugu: oliotan dauden bi antxoa jarriko ditugu; bat, pintxoaren alde batean, eta bestea beste muturrean. Dekorazioagaz amaitzeko, perrexil zatitxo batzuk gaitetik botako dizkiogu; beraz, prest izango dugu haregaz gozatzeko. Pintxo koloretzuaz gain, sekulako kontrastea sortzen du ahoan; gaztaren indarrak, tomatearen leuntasunaren aurka, eta antxoaren bizitasunak eztanda egingo digu ahoan. ○

Osagaiak: gazta urdin krema, cherry tomateak, antxoak, perrexila, txapata-ogia.



Croissanterie Briocherie

MONTE JAIA 1
48997 Getxo (BIZKAIA)
CROISSANTERIE-getxo.blogspot.com

94 460 86 48



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA




KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarrri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak


GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

uk **zure
publizitatea
hemen!**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Kaixo, hor zaude? Non sartu zara azken aldian? Saindu danen egunetik desagertuta zaude eta senideak arduratuta dituzu: sorginen batek bahitu zaitu?

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Parrandazale amorratua zara eta ezin aukera galdtu: urteko azken jaiak, Zamudiokoak, zoroen moduan gozatuko dituzu. Ondo pasa, baina ez pasa... eta egin gaupasa!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Beti eder, beti lerdin: arropa modakoa, ondo orraztuta eta makillatuta. Zenbat denbora emoten duzu zure burua prestatzen goizero? Ez litzateke hobe denbora hori lotariko erabiltzea?

META



(Irailak 17 urriak 16)

Jostari zabilta egunotan eta telefonoz txantxak egitea gustuko duzu: lagunei, senideei, ezezagunei... Danentzako daukazu bromaren bat; baina tentuz ibili bueltan etorriko ote zaizun...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Antzinako ohiaturari jarraituz txarriboda egingo duzue airtite-amamaren baserrian. Ohi legez, zuzenean parte hartuko duzu, eta gero danak jatera! Menua: txarrikeria mordoa...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Kokoteraino zaude hainbeste lan: etxean, eskolan... Gozatzeko unerik ez daukazu eta nekatuta zaude. Onena telefonoa etxean utzita, ezer esan barik desagertzea egun batzuetan.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Ustekabekoren bat gertatu eta berehala zaude goibel eta negarti, danari emoten diozu garrantzia handiegia. Bizitza laburra da, ez galdu denborarik huskeriatan.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Bero egin du udagoien honetan, baina nahikoa ez eguzkia hartzeko: zergatik zaude horren beltz? Ez galdu denborarik gezurretan, danek dakite eta dendako makinako beltz kolorea dela zurea.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Sanmartinetako uda txikian sartu gara eta inoiz baino zoroago zabilta, hego-haize zakarrak jota. Beraz, zorakeriak egin ditzakezu lasai asko, haizearen errua izango da-eta...

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Igaro da Ramadam egiteko sasoi, baina zuk orain hasia erabaki duzu, eta dieta hasi duzu. Hobe zorroz aritzea eta lehenbailehen amaitzea, Gabonak latzak izango dira bestela.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)


Dendak ikuskatzen ibili zara eta praka batzuek maitemindu zara, baina dirua gurasoei eskatzea pentsatzen bazabiltza ondo iaioa zara! Beste moduren batean lortu beharko duzu guraria.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)

Udan mendira joaten hasi zinen eta utzi, irailan arranean eta berehala etsi, urrian futbolearen eta azkar aspertu: berehala nekatu zara kirol danakaz. Zuzer zara: ipurterrea ala alferra?



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Bi edo hiru letra dagozkio erlojuko zenbaki bakoitzari. Ordu hitzak osatzeko, orduekiko letrak idatz itzazu lehenik eta minutuekikoak gero. Adb.: hamarrek eta hamarreen 'zubi' hitza itxuratuko dugu.

1. Hamar eta erdiak.


2. Ordu biak eta laurden.

3. Laurak laurden gutxi.

4. Hamaikak eta hogeita bost.

5. Zortziak eta hogei.

6. Zazpiak eta bost.



gaztetxoak > bilatu eta irabazi

*Non egingo dira azaroan
Komiki eta Manga azokak?*

- Leioan
- Gorkizen
- Getxon

La Gusana liburudenda SARIA
 Tellagorri plaza, Algorta **lagusana**
 Tf. 94 491 14 12

- > Aurrekoaren erantzuna: Berangon
- > Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA **Oinutsik**
 kontsulta podologikoa
 Zubigane 4, Sopelana
 Tf. 94 404 74 20
 oinutsik@euskalnet.net



- > Aurrekoaren erantzuna: XIX. mendean
- > Irabazlea: **Janire Enzunza**

*deitu telefonoz: 944 911 337

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu

GETXO RUGBY-KO TABERNAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GETXO RUGBYKOAK GERNIKAN, 1988-89

Data zehatza ez dute gogoan, baina Getxo Rugby taldeak zilarrezko ezteiak ospatzen ditu aurten, eta gitxi gorabehera hasierako urte haietan Gernikan ateratako argazkia dela gogoan du Miren Mentxakatorrek. Emakumezko taldearen jaiotza ere ondo gogoan dauka: "inguruko gizonezkoek errugbian jokatzen zuten, eta eurek azustu egin genuen baietz, hurrengo astelehenean Faduran entrenatzera agertuko zela emakumezko errugbi taldea... Gauetik goizera osatu behar izan genuen taldea, goizetik gauera entrenatzailea bilatu... Eta hurrengo astelehenean han agertu ginen Getxo Rugbyko lehenengoko emakume taldea; entrenatzailea agertuko ete zen ere zalantza izan genuen... Baina, denok agertu ginen, taldeak aurrera egin zuen eta lehiatzen hasi ginen". Lokaridun bamba-zapatakaz eta txandalagaz entrenatzen eta baloia alderantziz hartuz emon ei zituzten lehenengo pausoak, baina bidea zabaldu eta hazia erein zuten haien fruituak jaso dituzte ondorengoek... ○

Zutunik: Miren Mentxakatorre, Igone Alkorta, Elena Cirex, Ainhoa Aurre, Bea Lamikiz eta Jose Martin "El Negro" (entrenatzailea)
Makurtuta: Lorea (Agirre?), Garbiñe Gomez, Itxi Paz, Elena Casado eta Nekane Alkorta

MAIXA LIZARRIBAR > trikitilaria

“Musika estilo oso ezberdinak entzun eta gustuko ditut”

Testua: **Ixone Vega**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Oso lagunzalea eta egoskorra naiz.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Egia esan oso gutxi joaten naiz zinera, ez daukat ezta pelikula faborito bat ere.

Gogoko esaldi edo lelorik?

Azken aldian asko errepikatzen dudana bat *“arpa jotzen ari naiz?”* da.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?

Aitak lehenengo trikitixa erosi zidanean, berezia izan zelako.

Badakazu ohitura txarren bat?

Gauza guztiak geroko uzten ditudala, ez azken momenturako baina beiti pentsatzen dut *“orain ez daukat denborarik gero egingo dut”*. Horrelako asko egiten ditut.

Aitor dezakezun bizio bat.

Ardotxo bat lagunekin hartzea, bizio bat baldin bada. Plazer bezala ikusten baitut nik.

Zein da zure musika-talderik gogokoena?

Momentuaren arabera. Musika estilo oso ezberdinak entzun eta gustuko ditut. Ez daukat talde bat besteak baino gehiago gustatzen zaidana.

Zein da zure ametsetako bat?

Baserrri bat edukitzea. Baina galdera hau hilabete bat beranduago egiten badidazu, ziur aski beste gauza bat esango nizuke.

Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat?

Anekdotak bezala, behin Maixa eta Ixiar garaian, Frantzia bidesari bat saltatu genuela.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Nire herria, Altzo. Dena daukadalako hemen. ○

LABURREAN— Maixa eta Ixiar taldeko trikitilaria Maixa Lizarribar (Altzo, 1971), eta Alaitz Telletxea, Alaitz eta Maider taldeko trikiti-jolea batu dira hainbat kontzertu eskaintzeko, besteak beste, Getxon joko dute XII. Nazioarteko Trikitixa Jaialdian. Azaroaren 18tik aurrera egongo dira sarrerak salgai 8 euroan eta ekimenak hainbat trikitilari batuko ditu Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 1999. urtean Maixa eta Ixiar musika-taldea banandu ondoren, 2002an bere izena izena izenburutzat zeraman bakarkako diskoa kaleratu zuen Lizarribarrek jazz musikariak lagun zituela. Geroztik Gose taldeagaz kolaboratu du, trikitia irakasten jarraitu duen bitartean Altzon. Getxon egingo duen emanaldiaren harira, elkarrizketatu dugu Maixa.

Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta, ArgIHizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan. ArgIHizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek *“argiarekin marraztea edo idaztea”* dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

ARGIHIZKIAK

Argazkietan oinarritutako TESTU LABURREN II. LEHIAKETA

Erakusketa Leioan

Azaroaren 4tik 18ra Gaztegunean

egizu!

uk
URIBE KOSTAKO
ALDIZKARIA

GETXO PHOTO EUSKARA BIZI aitxu! BERBALAMINE berba lagun E! Berango 21 Leioa URIBEKOSTAKO

Azaroak 16-17 Noviembre

Salón del

Manga

Azoka 2013

Areetako Geltokia Plaza
Estación de las Arenas
(Getxo)



Ordutegia- Horario

11.00 - 14.30 / 17.00 - 21.00

Sarrera / Entrada: 3 €

